

Kontzeju

www.oñati.eus

f
Bertan 3000
@bertan3000
Bertan 3000
Bertan 3000

DELIK

Oñatika Udol aldizkaria | 2016ko Maiatza | 261. zenbakia



FM 107.4
Oñati
Irratia

Bertan, bertakoa

Oñati Irratia
25. urteurrena

OÑATI IRRATIA
25 urtez AIREAN

OÑATI IRRATIA | 25. urteurrena



Argazkia: Natxo Santos

>> OÑATI IRRATIAK 25 URTE BETETZEN DITU AURTEN. 1991KO MAIATZAREN 11N EMITITU ZUEN AURRENEKO IRRATSAIOA. ORDUZ GEROZTIK IRRATIKO AHOTSA IZAN DEN MIREN URKIOLAREKIN (ORDIZIA, 1966) EGIN DUGU URTE HAUETAKO IBILBIDEAREN ERREPASOA

1991ko maiatzaren 11n izan zen Oñati Irratiaren lehen saioa. Nola gogoratzen dituzu antenara irten aurreko egunak? Martxoaren amaieran iritsi nintzen Oñatira, eta hilabete eta erdi izan nuen prestaketa lanetarako: programazioaren ardatz nagusiak osatu, sintoniak prestatu, herria ezagutzeko paseoak ematen... Miguel Angel Sarramendi, orduko kultura batzordeko burua, eta Jose Mari Agirrebengoa, kultura teknikariaren bitartez, hainbat herritar eta eragile ezagutzeko aukera izan nuen egun haietan. Aldi berean Euskadi Irratian egon nintzen astebetetz-edo, irratiko auto-kontrola egiten



ORDENAGAILU BARIK, INTERNET BARIK ETA SAKELEKO TELEFONO BARIK HASI GINEN. GAUR EGUN SINISTEZINA EMATEN DU, BAINA MOLDATZEN GINEN SAIOA AURRERA ATERATZEKO

ikasten. Halaxe igaro ziren egun haiek, tentsio puntu batekin, baina ilusio handiz.

Garai hartan ez zen irratia lokal askorik egongo, ezta? Oñatin baino lehentxoago Getxon jarri zuten martxan udal irratia, eta hura izan zen gure erreferentzia lehen urteetan.

Baina, egia esan, gaur egun ere, geurea bezalako udal irratia oso gutxi daude, EAEko irratien legea oso murriztailea baita.

Hiru orduko zuzeneko saio batekin hasi ziren emanaldiak. Nola gogoratzen duzu? Larunbata zen, eta San Migel

Txiki jaiak ospatzen ziren. Gogoan dut, *Bob Marley*ren abesti batekin hasi ginela (hura hil zela hamar ur te betetzen ziren), eta harrezkero urtero jartzen dugu abesti hura maiatzaren 11n.

Magazine erako saio berezia izan zen. Trikitilariak eta bertsolariak zuzenean aritu ziren, elkarrizketa ezberdinak egin genituen, aurrez ikastetxeekin grabatutako saioak ere sartu genituen... San Migel Txikiko jai batzordekoekin ere hitzordua jarrita geneukan, baina ez ziren azaldu. Bixamona izango zuten. Zorionez, ez zen faltarik izan, gauza asko genituelako prest.

Santa Marinaran, kultur etxe zaharreko ganbaran zegoen orduan irrateria, oso bestelako bitartekoekin: ordenagailu barik, internet barik, telefono mugikorrik gabe... Nola moldatzen zinen saioa osatzeko?

Ez dakit. Gaur egun ditugun baliabideak ikusita, sinestezina ematen du, baina moldatzen ginen, nola edo hala. Binilozko diskoak, zintetan grabatutako elkarrizketak eta publizitate kuñak... Noizbehinka, beharra baldin bazegoen, *rebox*-ean (zinta irekia) grabatzen genuen saioa, baina gehien gehienetan zuzenean emititzen genuen.

Beste erritmo batean egiten genuen lan. Orain, zalaparta batean ibiltzen gara, albistea nork lehenago emango, eta, ondorioz, batzuetan ezin duzu oso zehatza izan. Garai hartako irratsaioak lasaiagoak izaten ziren.

Oñati bezalako herri batek ematen al du egunero ordu eta erdiko irratsaioa osatzeko?

Egiten dugu!; beraz, ematen du, bai. Dinamika handiko herria da Oñati, eta beti dago zer kontatua. Hilabete batzuk, urtarrila eta uztaile batez ere, edo hauteskunde ondorengo hilabeteak, antzuagoak izaten dira, eta zailagoa izaten da hizpidea aurkitzea. Udala da



Astelehenetik ostiralera:

12:00-13:30 eta 19:00-20:00.

Gauean (22:00) eguneko saioen errepikapena.

Internet bidez:

www.oñati.eus atarian, zuzenean edo nahieran.

>> 25. URTEURRENEKO IRRATSAIO BEREZIAK

25. urteurrena ospatzeko saio bereziak egingo ditu Oñati Irratiak maiatzaren 9tik 13ra, herriko eraikin ezberdinetatik. Herritar guztiak daude gonbidatuta saioetan parte hartzera, eta irrateria nola egiten den bertatik bertara ikustera. Azken saioan urtebetetzeko tartak zozkatuko dituzte partehartzaileen artean.

- **MAIATZAK 9, astelehena**
Turismo bulegotik 11:00-13:00
- **MAIATZAK 10, asteartea**
Kultur etxetik, 11:00-13:00
- **MAIATZAK 11, asteazkena**
Gaztelekutik, 11:00-13:00
- **MAIATZAK 12, osteguna**
Udaletxetik 11:00-13:00
- **MAIATZAK 13, ostirala**
Kiroldigitik 11:00-13:00

gure albiste iturri nagusia, eta Udala geldi dagoen garaietan gehiago jo behar izaten dugu herrira edota herritik kanpora.

Urte hauetan eman dituzun albiste onenak eta txarrenak?

Ererepide istripuan hil ziren herriko lau gazteen albistea eman eta jarraipena egin behar izatea oso gogorra izan zen, senideak ezagunak izanik.

Joxe Mari Agirrebengoa ‘Txinparta’ gure lankidearen heriotza ere oso gogorra izan zen. Egun hartan ez genuen programarik egin.

Albiste onen artean berriez, herrian loteria edo kiniela sari potoloak egokitu direnekoak... eta azkenaldi honetan, Energia Portatilentzat eroslea zegoela esatea ere pozgarria izan zen.

2000. urtea mugarrria izan zen Oñati Irratiaren historian.

Egoitza berria estreinatu zuen Olarako dorrean, eta horrekin batera digitalizazioa etorri zen. Digitalizazioak aldaketa handia ekarri zuen, bai. Aukera ematen digu, adibidez, eguneko saioa grabatzeko legea betez (hilabetez gorde behar ditugu grabazioak, legearen arabera). Orain grabatu eta gorde egiten ditugu elkarrizketak eta herri mailako beste hainbat ekitaldi eta horrek fondo interesgarria



Nortek
Elektrizitate eta Sistemak S.L.

OÑATI IRRATIKO INSTALAZIDEN MANTENTZE ETXEA

Areso kalea 16
Tel.: 943 08 80 03
20210 LAZKAO (Gipuzkoa)



Zorionak!!

Segi dezagun lanean, 25 urtez **AIREAN**



osatzen joateko aukera ematen digu.

Internetek ate asko zabaldu dizkigu. Gaur egun irratsaioak zuzenean internetez ematen ditugu, edozein lekutatik entzuteko moduan, eta, gainera, eguneko elkarrizketak *www.0nati.eus* atarira igotzen ditugu, nahieran entzun ahal izateko.

Zer eman dio irratiak Oñatiri? Herriko informazioa eskuratzeko bitarteko bat, eta herriak berak sortzen duen informazioa zabaltzeko tresna bat. Eta herria bera hobeto ezagutzeko bide bat ere badela uste dut.

Irratiko talaiaatik ikusita, zein izan da Oñatiren bilakaera 25 urteotan. Asko aldatu al da? Irratitik ikusita, edo herrian bertan bizita, ikusi dut herria ireki egin dela. Zabaldu egin da mundura; gizartea irekiagoa da. Gainera, azpimarratuko nuke dinamismo handiko herria dela.

25 urteren ostean, nola lortzen duzu egunero mikrofono aurrean eseri eta ilusioari eustea 'Egun on' esatean?

Zer kontatua dagoelako, eta hori kontatu ahal izateko pribilegioa dudalako. Gainera, irrati hau oso nirea sentitzen dut, neuk eman diot bizia 25 urtez, eta horri jarraipena emateak ilusioa sortzen dit. Nahiago nuke, jende gehiagoren artean egingo balitz irrati, baina zaila da, beti ari garelako bolondres lana eskatzen, eta horrek bere mugak ditu.

Mezu berezirik 25. urteurren honetan?

Eskerrak eman egunez egun irratic jarraitzen digutenei, eta modu batera edo bestera saioakosatzen laguntzen digutenei, mezuak, notiziak eta deialdiak helaraziz. Eta eskerrik asko, elkarrizketa baterako deitzen diegunean, pega askorik ez jartzearen.

Eta gonbitea luzatu, bide batez; norbaitek irrati ikusi edo irrati parte hartu nahi badu, atek zabal zabalik ditugu.

> Kolaboratzaileak

Oñati Irratia herritarrekin eta herritarrentzat egiten da. Huetako batzuk, gainera, irratsaio propioak egitera ere animatzen dira. Hona hemen 25 urte hauetan irratiari aritu diren kolaboratzaileetako batzuk.



'Asteburua blai'. Mendia eta eskiarekin lotutako gaiak jorratzen zituen Gerardo Agirren 'Asteburua blai' saioan.



'Pottokatzen'. Fernando Mugarzaren 'Pottokatzen' musika saioa hainbat urtez egon da Oñati Irratiaren programazioan.



Irratiko saltseroak. Jairik jai eta umore onean beti ere, makina bat saio egin izan ditu goiko boskoteak (Josu Elorza, Oihana Diaz, Mikel Aranburu, Jose Manuel Mata eta Jon Ander Aramendi). Mikelek, bereziki, 15 bat urte eman ditu saio ezberdinak egiten: 'Jairik jai', 'Hitz eta Pitz', '29. geltokia', 'Hitz bitan'... Eguberri eguneko saio bereziak ere egin dituzte hamar urtez.



'Irratia sutan'. Rock doinu gogorak jorratzen zuten Joxe Mari Azpitarte, Aritz Mugarza eta Aitor Uriartek 'Irratia sutan' saioan, eta baita Iban Idigorasek ere, 'Rockaren uhinetan' saioan.



'Asteko izarrak' saioa egiten zuten Mikel Agirrek eta Xabi Arkauzek, Amaia Corrales kontrollean zela, elkarrizketak eta musika tartekatuz.



Dietetika eta sukaldaritzari Imanol Arkauz (zine kritikak) Tere Madinabeitia (Legazpiko berrie.), Mireia Bikuña (kirolak), Atziber Aranburuzabala (Arrasateko berrie.) eta Pello Zabala (eguraldia) ere izan dira Oñati Irratiko familiako kide.



Uholdeen ondorio

Oñati Irratia nondik nora sortu zen argitzeko 1983ra jo behar dugu. Urte hartan uholde handiak izan ziren Oñatin, eta herria ia inkomunikatuta geratu zenez, Udalak emisora bat jartzea erabaki zuen larrialdi kasuetarako, Migel Angel Kortabarria orduko Kultura batzordeburuak azaldu digunez. Santa Marinaran eraiki zen kultur etxe berriko ganbaran egokitu zuten emisora, baina hantxe egon zen geldi hainbat urtez. Azpiegitura hari etekina atera eta, bide batez, euskalduntze prozesuan laguntzeko asmoz, herri mailako irratia martxan jartzea erabaki zuen Udalak 1980ko hamarkada bukaeran.

ARATZ LOSADA | Oñati Irratiko kirol esataria

“Asko ikasten eta disfrutatzen ari naiz Oñati Irratiko kirol irratsaioekin”

la 9 urte daramazu Oñati Irratiko kirol irratsaioak zuzentzen. Zer moduz?

Bi urte lehenago kolaborazioak egiten hasi nintzen, kirol arloan orduan ere, eta 2008an kirol irratsaioen ardura hartzea eskaini zidaten. Egia esan, oso esperientzia ona izan da. Herriko kirol errealitatea barrutik ezagutzeko eta kirolari askorekin zuzeneko harremana izateko aukera eman dit. Asko ikasten eta disfrutatzen ari naiz.

Gainera, Oñatiko kirolariak beti dira albiste iturri, ezta?

Zorionez hala da, bai. Kirol mailan oso bizia da Oñati, batez ere Aloña Mendik egiten duen lanari esker, eta hortik kanpora dauden kirolariei esker ere bai.

Zurekin batera Oñati Irratiak internetera eta sare sozialetara ere egin zuen jauzia.

Bai, '2.0' belaunaldikoak gara gu, eta gaur egun ezinbestekoa da sare sozialetan egotea. Jende askok esaten zidan ezin zutela irratia zuzenean entzun. Horregatik irratiko elkarrizketak OK Magazinean igotzen hasi nintzen, eta handik gutxira irratian ere interneterako jauzia eman genuen. Gaur egun irratsaioak zuzenean interneten entzuteko aukera dago, eta eguneko elkarrizketa nagusiak podcast-ean dauden, nahieran entzuteko moduan.

Urte hauetako albisterei bat nabarmenduko al zenuke?

Zaila da, kirolari asko, istorio asko eta bizipen asko izan direlako. Zorionez, gauza polit asko kontatzeko aukera izan dut. Baina bat aipatzearen, Aloña Mendiko saskibaloit talde nagusia EBA mailara igo zenekoa esango nuke. Kiroldegitik zuzenean eman genuen eta oso berezia izan zen.

Mezu berezirik irratia 25. urte honetan?

Herriko kirolari eta kirolezaleei gogoratu, beste behin, hemen gaudela laguntzeko prest. Eta eskerak eman urte hauetan eman dizkidaten samurtasun guztiengatik.



MGEP

VEREDACION DE FOLIO A POLITECNICA

Ate irekiak

maiatzak 21 (larunbata) 11:00

Eskaintza akademikoa


- Sistema Elektroteknikoak eta Automatizatuak
- Automatizazioa eta Robotika Industrialak
- Sareko Informatika Sistemen Administrazioa
- Fabrikazio Mekanikoko Diseinua
- Fabrikazio Mekanikoko Produzioaren Programazioa
- Mekatronika Industrialak

www.mondragon.edu/gmhz
gmhz.mgep@mondragon.edu
 943 71 21 91

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

2016-2017

www.mondragon.edu/gmhz



XABIER IGARTUA ETA LIERNI OLMEDO | Oñatiko Gure Esku Dago

Herri galdeketa ekainaren 5era aurreratu dute

Ekainaren 12rak oiragarritu zegoen erabakitzeko eskubidearen aldeko herri galdeketa, baina Espainiako hauteskunde orokorretako kanpaina ekainaren 10ean hasiko denez, herri galdeketa ekainaren 5era aurreratzea erabaki du Erain Debagoienak.. Gure Esku Dago taldeko Xabi Igartuak eta Lierni Olmedok galdeketa parte hartzerantz animatzen dituzte herritarrak.

Herri galdeketa data aldatzea erabaki duzue azkenean. Zergatik?

Espainiako hauteskunde orokorretako kanpaina ekainaren 10ean hasiko delako eta ez dugulako horretan eragin nahi. Beraz, ekainean galdeketa egitekoak diren beste herriekin (Goierrri, Azpeitia, Dima...) adostu dugu denok ekainaren 5ean egitea.

Herri galdeketa zilegitasuna emateko 6.500 sinadura (Debagoiena eta Aramaioko biztanleen %10) batu nahi zenituzten, eta dagoeneko 7.500 jaso dituzue. Zein da balorazioa?

Oso ona, kontuan hartuz batez ere, ez dugula aparteko ahaleginik egin sinadurak lortzeko. Herritarrak eurak izan dira sinadura emateko konpromisoa hartu dutenak pozesuari zilegitasuna emateko, eta, beraz, oso positibotzat jotzen dugu. Oñatin bertan 1.600 sinadura batu ditugu. Erraz esaten da, baina kopuru inportantea da.

Maiatzaren 7rarte jarraituko dugu sinadurak batzen. Gero Bake Epaitegira eramango ditu-

gu egiaztatzeko, Gardentasun osoz jokatu nahi dugu.

Debagoienan ez ezik, Goierrin, Azpeitian, Ispasterren, Diman eta Bakaikun ere egingo dira galdeketa ekainean. Datorren urterako beste hainbat herri eta eskualdetan iragarritu daude. Zein da galdeketa olde honen arrazoia?

Gure Esku Dago-k aldarri bat izan du sorreratik: erabakitzeko eskubidea egikaritzea. Eta horretarako, zilegitasuna lortu behar da. Hau da, erakutsi behar dugu aldarri hori ez dela GED-ko kideena soilik, baizik eta herritar kopuru handi eta zabal baten babes duela.

Eta nola lortzen da hori? Ba herriz herri galdeketa eginez. Eta herri borondate horiek denak batuz, iritsi gaitezke kopuru handietara (milioi bat inguruko partehartzea) eta horrek emango digu zilegitasuna exijitzeko herri galdeketa nazional bat, euskal herritarrek demostratu dutelako beraiek erabaki nahi dutela etorkizuneko estatus politikoa.



“Espainiako hauteskunde orokorretako kanpaina ekainaren 10ean hasiko denez, herri galdeketa aurreratzea erabaki dugu ekainaren 5era”

Beraz, inportantea da herri galdeketa parte hartzea, emaitza loteslea ez bada ere. Jakina. Gustatuko litzaziguke hemen ere Eskoziakoa bezalako erreferendum bat egitea, alderdi politikoak ados jarrita. Baina, zoritxarrez, ostopoak baino ez ditugu ikusten, eta uste dugu hori desblokeatzeko bide egokiena dela Kataluniako bidea, hau da, herri borondatea aktibatzea.

Horretarako ezinbestekoa da herriz herri antolatuko diren galdeketei ahalik eta babes handiena ematea. Zenbat eta handiagoa partehartzea, orduan eta azkarrago joango da prozesua.

Estatus politikoa buruzko



“Oso inportantea da ahalik eta partehartze handiena egotea herri galdeketan. Horrek emango digu zilegitasuna Euskal Herri mailako galdeketa antolatu ahal izateko”

galdeketarik ezin dela egin esaten dutenei kontra egiteko argudiorik onena da; alegia, erakustea naturaltasun eta transparentzia osoz egin daitekeela galdeketa, baiezekoak eta ezezekoak aukera berdinak dituztela.

Zenbatekoa izan beharko litzateke partehartzea, herri galdeketa arrakastatsua izan dadin?

Kontua ez da kopuru bat jartzea, azterketa bat balitz bezala. Helburua ez da hori. Helburua da, herriz herri borondateak batzen joatea. Beraz, gure buruari jartzen diogun erronka da halaik eta herri-

‘6.000 euro galdeketa antolatzeko’

Herri galdeketa antolatzeko zilegitasuna ematen dioten sinadurak batuta, kontsulta bera egiteko baliabideak eta azpiegitura prestatzen hasita daude Erain Debagoiena taldeko kideak. Beste edozein hauteskuntetan izaten diren berme edo garantia guztiekin egin nahi dute galdeketa. Hala, bozka-paperak etxe guztietara banatuko dituzte, begiraleak ere egongo dira galdeketa egunean, eta eskualdeko abokatuz osatutako Kontrol Batzorde bat eratuko dute, galdeketak transparentzia eta zilegitasun osoa eduki dezan. Hori guztia behar bezala antolatu ahal izateko, 6.000 euro inguru beharko dituztela aurreikusten dute, eta horretarako diru-bilketa kanpaina egingo dute datozen egunetan. Beraz, dei egiten diete herritarrei eta enpresei galdeketa aurrera atera ahal izateko diru ekarpena egitera.

tar gehien aktibatzea.

Katalunian egin zen lehenengo galdeketan (Arenys de Munt herrian) partehartzea %40 ingurukoa izan zen, eta gero ikusi dugu, borondateak pilotzen joan diren heinean, nola bizkortu den prozesua eta zein egoeratan dauden gaur egun, inbidia emateko moduan.

Euskal Herrian orain arte egin diren galdeketetan (Etxarri eta Arrankudiaga) botoen %90etik gora independentziaren aldekoak izan dira. Ez al dio sinisgarritasuna kentzen halako emaitza batek?

Ez. Galdeketa hauetan benetan inportanteena dena partehartzea da, ez emaitza. Beraz, zilegitasuna kentzen diona da soilik emaitzen araberako balorazioa egitea da.

Normala da *statu quo*-aren aldaketa proposatzen duen galdeketan baten aurrean, marko horretan eroso dagoenak abstentziara jotzea.

Baina, berriro diogu, gure helburua partehartze da, ez baiezeko edo ezezeko kopuru handiagoa lortzea. Partehartzea handia bada, emaitzak indar handiagoa izango du, izan batekoa edo bestekoa.

Baina inportantea litzateke abertzaleak ez direnak ere erakartzea prozesura, ezta?

Bai; baina guk ez dugu kanpaina egiten ez baiezekoaren ezta ezezekoaren alde. Gure aldarria da etorkizuna herritarren borondatearen gaineran eraiki behar dela, eta herritarrek erabaki behar dutela zein estatus nahi duten beraien arteko elkarbizitza antolatzeko.

Emaitza bata zein bestea izan, partehartzea handia bada, guretzat lorpena izango da.

Gelditzen den hilabete honetarako ze asmo duzue?

Hilabete honetan auzo-jai eta bestelako ekitaldi asko dago Oñatin, eta horietan guztietan presente egoten saiatuko gara herritarrek informatu eta herri galdeketan parte hartzera animatuz. Aldi berean, galdeketa bera prestatzeko lanetan ere hasita gaude: boto-paperak, hauteslekuak, begiraleak...

Bozka aurreratua emateko aukera egongo al da?

Bai. Galdeketa egunean Oñatin egongo ez diren herritarrek ere izango dute bozka emateko aukera. Datozen egunetan jakinaraziko dugu non eta noiz egin ahal izango den.

AUZO-TAXI ZERBITZUA jarriko du martxan Udalak

Landa-auzoetako bizilagunei zuzendutako zerbitzua da, herrigunerako joan-etorriak egiteko. Erabiltzaileak 2 euro ordainduko ditu bidaia bakoitzeko.

Landa-auzoetako bizilagunek, batez ere Ladinoko jendeak eta kotxerik ez daukatenek, zailtasunak izaten dituzte herrigunera etortzeko. Hori kontuan hartuz, auzo-taxi zerbitzua martxan jartzea erabaki du udalak, baserri inguruetakoa herritarrek garraio publikoa erabiltzeko duten eskubidea bermatzeko eta, bide batez, beraien bizi-

kalitatea hobetzeko.

Javier Marquez taxilariak proposatu zion Udalari auzo-taxi zerbitzua jartzea. "Banekien Durangaldeko herri batzuetan ondo funtzionatzen ari dela eta, gainera, sektorean bizi dugun krisia kontuan hartuz, taxilariontzat lan aukera berri bat izan daitekeela uste dut" azaldu digu taxilari oñatiarrak.

Udalak auzo-alkateen foroan aztertu zuen gaia, eta hauen oniritzia jaso zuenez, urtea amaitu arte auzo-taxi zerbitzua abian jartzea erabaki du, proba piloto gisa.

Horretarako, Udalak 18.000 euro bideratuko du

auzo-taxi zerbitzua martxan jartzera. Taxilariekin adostuta, zerbitzu bakoitzaren prezioa 11 eurokoa izango da, baina erabiltzaileak 2 euro bakarrik ordainduko du, eta gainerakoa Udalak.

Proba piloto hau urte amaiera arte luzatuko da. Hilabete hauetan zerbitzuak nola funtzionatzen duen eta zer nolako eskaria duen aztertuko du Udalak, horren arabera erabakiak hartzeko

ORDUTEGI MUGATUA

Auzo-taxi zerbitzua urte osoan eskainiko da, abuztuan izan ezik, ordutegi honekin: astelehenetik ostiralera 7:30-20:00 eta larunbatetan 9:00-14:00.

AUZO-TAXI ZERBITZUA ESKATZEKO

943 - 78 03 65

zenbakira deitu beharko da auzo-taxi zerbitzua eskatzeko. Zerbitzuaren funtzionamendu egokia bermatzeko, gutxienez 24 ordu aurretik egin behar da erreserba



Ipeñik
Kontaeju

smk
san miquel kooperatiba
943 781 217
kale barria 8 - 20560 ubai
www.sanmiquel.coop

EGUR-LAN
AROTEGIA
LIMASAT S.L.
BEREZAO INDUSTRIALDEA 20560 OÑATI (GIPUZKOA)
TEL / FAXA: 943 78 14 39 - liru.oberasari@gmail.com
www.egur-lan.es

Oñatiko landa guneetan erroldatuta dauden herritarrek erabili ahal izango dute auzo-taxia. Baina, aurrez, erabiltzaile txartela eskatu beharko dute udaletxean. Txartel pertsonalizatua izango da eta erakutsi egin beharko da taxian sartu aurretik. Gazteek (5-18 urte) ere bidaiatu ahal izango dute bakarrik auzo-taxian, baina beraien guraso edo tutoreen baimenarekin beti ere.

Auzo-taxiak herriko 16 baserri-auzoetako bizilagunei emango die zerbitzua, autobus geltoki batetik 350 metro baino gutxiagora bizi direnei izan ezik.

Landa-auzotik herrigunera edo herrigunetik landa-auzora joateko bidaiak egingo dira soilik. Norbaitek Arrasatera joan nahi badu, adibidez, taxi tarifa arrunta ordaindu beharko du.

Eskaripeko zerbitzua izango da, eta zerbitzuaren funtzionamendu egokia bermatzeko gutxienez 24 ordu aurretik egin behar da eskaera, Oñatiko taxi geltokiko telefono zenbakira (943780365) deituta.

Herriko sei taxilarien artean emango dute zerbitzua. Aste bakoitzean goardian dagoen taxilariak jasoko ditu eskariak eta berak ezin badu zerbitzuren bat bete, beste taxilari bati pasako dio.

Udalak gutun bana bidali die landa auzoetan erroldatuta dauden herritarrei auzo-taxi zerbitzuaren berri emanez, eta interesa dutenek **maiatzaren 13a baino lehen** eman behar dute izena udaletxean. Gero txartelak egingo ditu Udalak, eta hil honen bigarren erdirako zerbitzua martxan egongo da.

AUZO-TAXI TXARTELA ATERA BEHAR DA ZERBITZUA ERABILI AHAL IZATEKO

Oñatiko landa auzoetan erroldatuta dauden herritarrek erabili ahal izango dute auzo-taxi zerbitzua, baina horretarako Udalak emandako txartela eskuratu beharko dute. Txartel pertsonalizatua izango da, eta derrigorrez erakutsi beharko da taxian sartu aurretik. Debekatuta egongo da titularra ez den beste inork erabiltzea.



Txartela pertsonalizatua izango da. Udaletxean eskatu behar da.



MIKEL BIAIN
Alkatea

“Auzo-taxiaren helburua da landa eremuetako bizilagunei garraio zerbitzua eskaintzea prezio publikoaretan”

Herrigunetik aparte bizi diren herritarrei garraio zerbitzu publikoa eskaintzea da Auzo-Taxi zerbitzuaren helburua. Garbi dago ez dela bideragarria autobus batekin Oñatiko hamasei auzoei zerbitzua ematea. Beraz, beste herri batzuetako esperientzia ikusita, taxi baten bidez ematea erabaki dugu. Azken batean, helburua da autobusa iristen ez den landa eremuetako bizilagunei garraio zerbitzua eskaintzea prezio publiko batekin.

Aurtengorako 18.000 euroko diru poltsa bat jarriko du Udalak, eta horrek ematen du mila inguru bidaia egiteko. Esperientzia piloto bat da. Urte amaiera bitartean ikusiko dugu zer nolako erabilera duen (erabiltzaile mota, egunak, orduak...) eta horren arabera hartuko ditugu erabakiak hurrengo urtera begira.

‘LANBUS’ ETA ‘HERRIBUS’

Auzo-taxi zerbitzuaren sorrerarekin batera, Lanbus zerbitzuaren amaiera etorri da. Industrialdeetako enpresetako langileei zuzenduta, 2009an jarri zuen abian Lanbus zerbitzua Udalak, Fagor Industrial, Ulma Construcción, Packaging eta Piping enprekin elkarlanean eta Foru Aldundiaren laguntzarekin. Udalak kostuaren %33 hartzen zuen bere gain. Azken urteotan baina, Ulmako langileek bakarrik erabili dute zerbitzua, eta kontuan hartuz Udala Herribus proiektua (hiri-garraio zerbitzu publikoa) martxan jartzekotan dela, Lanbus zerbitzua etetea erabaki du.

Auzotik herrigunera edo herrigunetik auzora joateko bakarrik erabili ahal izango da auzo taxi zerbitzua

MAPFRE
Oñati

Paritu kalea, 5
20660 Oñati

Tel.: 943 78 12 65
Faxa: 943 78 07 65

ARRI
Industria Hornidurak
Burdindegia

Goribar auzoa, 10 • Tel.: 943 78 11 18
suministrosarri@hotmail.com



Oñati Abesbatzak 50 urte

Ekainaren 4an kontzertu berezia eskainiko du Oñati Abesbatzak 50. urteurrena ospatzeko. Erakusketa bat ere egingo dute kultur etxean (maiatzak 27-ekainak 5)

Bi disko, argitalpen ugari eta ezin konta ahala emanaldi. Eta tartean, noski, emozioz eta sentimenduz betetako hainbat eta hainbat bizipen. Halaxe laburbil liteke, hitz gutxitan, Oñati Abesbatzaren 50 urteko ibilbidea. Mende erdia euskal kantugintza tradizionala eta erlijiosoa zabaltzen, batez ere Aita Madinarena.

Izan ere, Oñati Abesbatzak lotura estua eta berezia izan du beti Madinarekin eta, oro har, Agustindarren elkartarekin. Patxi Anduaga laterandarra izan zen lehenengo zuzendaria, eta hau Estatu Batuetara destinatua

zutenean, Imanol Muruak hartu zuen batuta. Entsaioak ere Agustinoetan egiten ditu Oñati Abesbatzak. Etxean bezala sentitzen dira bertan.

AITA MADINAREN ENBAXADORE

Aita Francisco Madinaren (1907-1972) musikak leku berezia izan du Oñati Abesbatzaren historian. Zubillagako musikagilearen enbaxadore izan dela esan daiteke. *Aita Gurea* edo *Arantzazu Poema Sinfonikoa* bezalako obrak ikurrak izan dira Oñati Abesbatzarentzat, eta

ahalegin berezia egin du beti Madinaren izena eta musika toki onean uzteko.

Musika interpretatzeaz gain, Madinaren biografia jasotzen duen liburua ere argitaratu zuen Oñati Abesbatzak. Eta arlo hori ere azpimarratu behar da, izan ere, kantatzera mugatu barik, argitalpen lan aberatsa egin baitu urte hauetan; Jose de Azpiazu, Julian Sagasta, Luis Mallea eta Antonino Ibarrondoren biografiak eta beraien partiturak katalogatu eta argitaratu izan ditu, ekarpen balio-tsua eginez herriko ondareari.



ERRETIROAGATIK
LIKIDAZIOA PREZIO HOBEEZINETAN

ALTZARIAK • ELEKTROGAILUAK • ARGIZTAPENAK • OPARIAK
ELEKTRIZITATE MATERIALA • BAINUGELETARAKO OSAGARRIAK

Euskadi Etorbidea 3
Tel.: 943 78 04 04 / 943 78 20 08

OÑATZ ELKARTEA

Oñatz elkartearen baitan sortu zen Oñati Abesbatza 1966an 'Coral Oñatz' izenarekin, eta izen horrekin parte hartu zuen, adibidez, Tolosako Abesbatzen lehiaketan, 1969, 1971, 1972 eta 1974ko edizioetan.

1972 eta 73 urteak bereziak izan ziren abesbatzak hartuko zuen norabidean. Julian Zelaia eta Aita Madina hil ziren urte horietan, eta hauen omenez antolatutako kontzertuetan Madina zenaren obra nagusiak (*Arantzazu Poema*, *Aita Gurea*, *Agur Maria...*) interpretatu zituen maisuki abesbatzak eta hortik aurrera presentzia eta protagonismo berezia izango zuen Madinaren musikak Oñati Abesbatzaren errepertorioan. Madinaren musikarik gabe, abesbatzaren ibilbidea oso desberdina izango zen.

Madina ez ezik, Oñatik izan dituen beste musikari handiak ere oso gogoan izan ditu beti Oñati Abesbatzak, eta hala, Aita Mallea, José de Azpiazu, Demetrio Iriarte eta Antonino Ibarrendoren omenaldietan parte hartu izan du.

DISKOAK

1980. hamarkadan loraldia bizi izan zuen euskal musika koralak, eta Oñati Abesbatzak ere makina bat lehiaketa, topaketa eta emanalditan parte hartu zuen. Azpimarratzekoa, adibidez, *Arantzazu Poema* Madrilgo San Inazio elizan abestu zutenekoa, 1993an.

1983an bere lehen diskoa (Madinaren *Arantzazu Poema Sinfonikoa*) grabatu zuen

(Hurrengo orrira)



1980ko abenduan Urretxuko parrokian emandako kontzertuko irudia

IMANOL MURUA eta LOLI ORDOKI

Oñati Abesbatzaren bizkarrezurra

Oñati Abesbatzaren historiaz ari garelarik, nahitaez nabarmendu beharreko izenak dira Imanol Murua eta Loli Ordoki. Bien artean eraman dute abesbatzaren gidaritza eta pisurik handiean urte guzti hauetan. Muruak 40 urtez (1968-2008) zuzendu du abesbatza, eta lan handia egin du partiturak moldatu eta entsaioak zuzentzen. Eta Loli ere hortxe egon da beti Muruaren aldamenean, laguntzeko prest, eta baita zuzendari lanetan ere zortzi bat urtez. Oñati Abesbatzaren bakarlaria izan da bera eta inork baino hobeto abestu ditu Madinaren obrak, batez ere. Eta Aita Madinak berak ere halaxe aitortu zion behin Loliri, "nire bakarlaria" zela esanez.





ZUBITXO S COOP
Tel.: 943 73 06 91
Mug.: 600 063 606
www.zubitxo.com

IGELTSEROTZA eta ERREFORMAK

- Tellatuak, inpermeabilizazioak
- Fatxadak, SATE isolamenduak
- ITE estudioak
- Baserrien eraberritzea
- Gremioen koordinazioa



Bartzelonan, bertako orkestrarekin, eta Juan Carlos Irizarren zuzendaritzapean (1998an berrargitaratua CD formatoan).

1997an *Lauda Sion* diskoa grabatu zuen, Burlatako San Blas Abesbatza eta Jose Manuel Azkue organujolearekin, Aita Madinaren omenez.

ETAPA BERRIA

Musikazaletasua partekatzen duen familia edo lagunartea direla esan ohi dute, apalki, Oñati Abesbatzako kideek, baina proiektu handiei aurre egiteko gai direla ere erakutsi dute, bai lehen eta baita orain ere. Hala, 1981ean 'Mozkorra parregarri' (*El borracho burlado*) euskal opera estreinatu zuen kontzerturako bertsioan, Javier Bello Porturen orkestrarekin. Azken urteotan berriz, *Mozart*, *Fauré*, *Vivaldi* edo *Bach*-en obrak interpretatu ditu Bergarako Orfeoiaarekin batera.

Hala ere, Oñati Abesbatzak ez dio sekula muzin egin herri mailako ekitaldi xumeagoetan parte hartzeari. Hala, urtero egiten dute saio bana San Martin egoitzan eta Santa Ana komentuan, eta herriko auzo gehienetako jaietan ere abestu izan du.

Gogoratu behar da, baita ere, hainbesteko sona lortu duen Ganbara Abesbatzako hainbat kide Oñati Abesbatzean hasi zirela.

Gaur egun 38 ahotsek osatzen dute Oñati Abesbatza. Iaz Miren Gurutze Plazaolak hartu zuen zuzendaritza eta horrek ere haize eta ilusio berriak ekarri ditu etorkizunerako erronkei aurre egiteko.



Goian, Julian Zelaiari eskainitako omenaldiko irudia (1972).

ARGITALPENAK
Kantatzera mugatu barik, argitalpen lan aberatsa egin du Oñati Abesbatzak urte hauetan



50. URTEURRENEKO EKITALDIAK

▶ ERAKUSKETA (maiatzak 27-ekainak 5).

Oñati Abesbatzaren 50 urteko ibilbidearen erakusle diren argazkiak, partiturak, esku-programak, kartelak, bideoak... ikusgai egongo dira kultur etxean.

▶ KONTZERTUA (ekainak 4)

50. urteurrena ospatzeko kontzertu berezia Santa Ana antzokian. Abesbatzaren ibilbidean ikur izan diren abestiak (*Aita Gurea*, *Agur Maria*, *Poema Sinfonikoa*-ren atal batzuk) kantatuko dituzte, besteak beste. Gaur egun Donostiako Orfoiaren zuzendariordea den Esteban Urzelaik eta Ganbara Abesbatzako zuzendari Aitor Biainek ere parte hartuko dute kontzertuan.





caravanas **Oñate**

• **GALDARAGINTZA - CALDERERIA**
Oñateko zabalzarria, 25 • Tel.: 943 71 63 60
www.caravanasoñate.com

• **BIZIKLETAK**
• **ERREMOLKEAK**
• **TXIRRINDULARITZARAKO OSAGARRIAK**
Oñateko zabalzarria, 25 • Tel.: 943 78 05 65
Atzeko kalea, 32 (erakusketa)




ISOLAMENDU TERMIKO ETA AKUSTIKO EKOLOGIKOA

ZURE ETXEBIZITZARAKO

Babestu hotzetik neguan

Babestu berotik udan

Hezetasunak saihestu

Isolamendu akustikoa

Energia aurreztu

Sua hedatzea saihestu

*Energian aurreztu
eta lortu intimitatea*



MIKEL AGIRREZABAL ESKARTZA >>
Enpresako arduraduna

Informatu zaituz
konpromezurik gabe!



OSPARRE GAIERRO
INSTALAKUNTZA



EGUN BATERKO
LARA



ENERGIA
AURREZTEA



Izaneko

ISOLAMENDU TERMIKO EKOLOGIKOAK

Zubillaga industrialdea 76
T. 637 304 574

isolamenduak@izaneko.com
www.izaneko.com



Etorkinak eta bertakoak, Auzokideak eta Auzotarrak. Denek osatzen dute Auzoko

'Auzoko' Eguna

Oñatin ospatuko da maiatzaren 28an

Euskaratik urrun dauden pertsonak (etorkinak edo bertan jaioak) euskarara gerturatzea eta, bide batez, herrian integratzen laguntzea helburu duen egitasmoa da **AUZOKO**, beti ere herrian dagoen hizkuntza eta kultur aniztasuna errespetatuz eta baloratuz. Hizkuntza eta jatorri askotako jendea elkartu, eta guztien arteko komunikazio edo kohesio hizkuntza euskara izatea sustatzen du **AUZOKOK**. Azken batean, kuadrilla bat bezalakoa da, **Auzokideak** (euskarara gerturatu nahi dutenak) eta **Auzotarrak** (euskal hiztunak) batzen dituenak, eta astero elkartzen direnak ordu pare batez, elkarrengandik ikasi eta euskara guztion eskura jartzeko asmoz.

Topagunea elkartea eta udaleko Euskara sailaren ekimenez, orain dela hiru urte jarri zen martxan Oñatin Auzoko egitasmoa, eta hiru ikasturte hauetan zehar 60 bat pertsona pasa dira bertatik: kolonbiarrak, marokoarrak, argentinarrak, pakistandarrak, algeriarrak, ekuadortarrak, bereberrak, nepaldarrak, espainiarrak...

Hamabost bat lagun elkartzen dira astero, asteazken edo ostegun iluntzetan (20:00-22:00) Euskaltegiaren aldameneko lokalean, euskara praktikatzeko asmoz, modu ludikoan beti ere (jolasak, kantak, afari tematikoak...). Tarteka kanpora ere irteten dira, herriko txokoak ezagutu, edo pintxo-potean murgiltzera, besteak beste.

Gustora joaten direla aitortu ditugte Auzokideek. "Auzoko oso lagungarria da Oñatiko jendea ezagutzeko, euskara praktikatzeko eta herrian integratzen joateko". Eskatzen hasita, Oñatiko jende gehiagok parte hartzea nahiko luketela esan digute. "Oñatiko jende gehiago behar dugu, euskara praktikatzeko eta herrian integratzeko".

Urko Egañak da Oñatiko Auzoko programaren dinamizatzailea, eta Urkorekin batera bi oñatiarrek (Maidar Sansinenea eta Maika Garitano) parte hartzen dute auzotar gisa. "Etorkinen integrazioa bultzatu nahi badugu, aukera ederra da esku bat luzatzeko" azaldu digu Maidarrek; "euskara ikasteko duten gogoia eta konpromisoa ikusita, zer da ba guretzat astean bi ordu eskaintzea? Gainera, geuretako ere oso aberasgarria da, asko ikasten dugulako beraiengandik".

Ildo berean, Urko Egañak ere animatu egin nahi ditu herritarrak AUZOKO programan parte hartzera. "Gonbitea luzatzen diet bai kanpotarrei, herrian integratzeko gogoia dutenei, eta baita oñatiarrei ere, euskarara gerturatzeke gogoz dauden pertsona hauei laguntzera etor daitezen".



Urko Egaña
Dinamizatzailea

"Oñatin dagoen kultur eta hizkuntz aniztasuna kontuan hartuz, guztien arteko kohesio hizkuntza euskara izatea da helburua"



Maidar Sansinenea
'Auzotarra'

"Euskara ikasteko duten gogoia eta konpromisoa ikusita, zer da ba guretako astean bi ordu eskaintzea?"



'AUZOKO' EGUNA

Aurtengo Auzoko Eguna Oñatin ospatuko da maiatzaren 28an. Auzoko egitasmoa martxan duten herri guztietako kideak batuko dira (Donostia, Gasteiz, Ibarra, Soralue, Antzuola, Arrasate, Aretxabaleta, Azpeitia, Bergara eta Eskoriatza), baina oñatiar guztiei zabalik egongo da. Euskara erdigunean jarrita, jatorri ezberdinetako hizkuntza eta kulturak ezagutzeko aukera egongo da. Foruen plazan izango da jaia, 11:30etan hasita. Auzoko programaren dinamika ezagutu eta herri ezberdinetako jakiak dastatzeko aukera egongo da. Tarteka, dantzak, musika eta herri kirolak ere egongo dira, eta haurrek ere izango dute beren txokoa, munduko jolas eta eskulan tailerrekin.



Guztiona, guztion artean



Sartu ate guztiak zabalduko dizkizun prestakuntzara. Zurea da aukera!

Batxilergoa: Zuazola

- Banan-banako orientazio akademikoa: Unibertsitatera edo Lanbide Heziketara.
- Kalitatezko heziketa euskalduna.
- Talde txikiak.
- Teknologia berriak.
- Hizkuntzei arreta berezia:
 - Euskara, EGA eskuratzeko aukera.
 - Ingelesa, elkarrizketarako laguntzalleekin.
 - Frantsesa, Alliance Francaise titulua lortzeko aukera.
- Ekintza osagarriak eta eskolaz kanpoko ekintzak (curriculum garatzeko).

Modaltateak:

Zientziak: Matematika, Fisika-Kimika, Biologia-Geologia, Marrazketa Teknikoa, Teknologia,...

Gizarte zientziak: Historia, Geografia, Matematika, Enpresaren Ekonomia...

AURREMATRIKULA: maiatzaren 2tik-12ra.

Ate irekiak: maiatzaren 3an 18:00etan Zuazola egoitzan.

Heziketa Zikloak: Larraña

Erdi mailako Heziketa zikloak:

- Mantentze-Lan Elektromekanikoak
- Mekanizazioa
- Natur ingurunean gorputz eta kirol Ekintzen Gidaritza

Bestelako Hezkuntza eskaintza:

- Lanerako prestakuntza: Langile eta langabetuentzat ikastaroak doan.
- Eskaeren araberako prestakuntza.

Ate irekiak: maiatzaren 24an, 18:00etan Larraña egoitzan.



destino helburu
MONGOLIA



abentura eta elkartsuna bat eginda

Sergio Gil eta Sergi Lopez oñatiarrek 11.000 kilometro egingo dituzte kotxez eta dohaitzan emango diote Ulan Batorren lan egiten duen GKE bati

Sergio Gil eta Sergi Lopez oñatiarrek 'Mongolia helburu' izeneko abentura solidarioa jarri dute abian. Bidaiatzea gustuko duten bi gazte hauek Oñatitik Ulan Bator-era (Mongoliako hiriburua) dauden 11.000 kilometroak kotxez egingo dituzte, eta helmugara iristean, bertan lan egiten duen 'La otra mirada' Durangoko elkarteari emango diote autoa dohaitzan. Autoaz gain, Mongolian martxan dituzten proiektuentzako laguntza ekonomikoa eta materiala ere eraman nahi dute.

Uztailaren 23an abiatuko dira Oñatitik, eta dena ondo badoa 25 bat egunetan iritsiko dira Ulan Batorrera, Pirinioak, Alpeak, Dolomitak, Europa erdialdeko herrialdeak (Austria, Txekiar Errepublika, Polonia), Errusia (Transiberiar trenaren bidea jarraituz), Kazajastango estepa, Altai Errusiarra eta Gobiko desertua zeharkatuz, besteak beste.

'LA OTRA MIRADA'
Dena ondo bidean, abuztuaren 18 aldera iritsiko dira Ulan

**AUTOA
UZTEAZ GAIN,
LAGUNTZA
EKONOMIKOA
ETA
MATERIALA
ERE ERAMAN
NAHI DUTE 'LA
OTRA MIRADA'
ELKARTEAREN
PROIEKTUEI
LAGUNTZEKO**

Batorrera, eta laupabost egun igaroko dituzte bertan *La otra mirada* elkarteak egiten duen lana bertatik bertara ezagutzen eta, ahal bada, laguntzen.

Durengon egoitza duen elkarte humanitarioa da 'La otra mirada', eta desgaitasunak dituzten haurrei laguntzeko proiektuak ditu Mongolian eta Senegalen. Umeen bizi kalitatea eta heziketa maila hobetzea da beraien helburu nagusia, eta, bide batez, lanpostuak sortzea.

Mongoliari dagokionez, iaz Ulan Bator hiriburutik 40km.-

ANE MERTZERIA



- Jostako zarak
- Lantzoria
- Umsoen jantzak

Kale Barria, 54 OÑATI

Cartonajes Arregui, S.A.



- Kartoi ondulatuaren fabrikazioa
- Enbase eta enbalajeen fabrikazioa

Goribar auzoa. Tfnoak: 78 05 59 / 79 05 09
Faxa: 78 30 94. 79 Posta Kutxatila. OÑATI

ra dagoen *Nalaikh* izeneko herrian eskola txiki bat eraiki zuten, desgaitasun fisiko edo psikikoren bat duten neska eta mutikoak gizarteratzeko asmoz, bestela ez dutelako eskolarik jasotzen. Gaur egun 25 neska-mutiko eskolara joatea lortu dute, baina beraien helburua 180 ikaslera iristea da.

Orain ikastetxeak duen behar nagusietako bat berogailu sistema jartzea da, hango negua luzea eta gogorra izaten delako. Beste behar nagusietako bat umeen errehabilitazioa egiteko materiala (makuluak, ferulak, gurpil aulkiak...) da, eta baita auto egokitu bat ere, haurrak ospitalera eramateko. Horregatik, bidaiari erabiliko duten furgoneta mixtoa dohaintzan emateaz gain, laguntza ekonomikoa eta materiala ere eraman nahi dute Sergiok eta Sergik.

NOLA LAGUNDU

Aukera edo bide ezberdinak daude proiektu honi lagundu ahal izateko. Alde batetik,

Crowdfunding kontu bat ireki dute, eta bertan kamisetak eta bestelako *merchandising* produktu ezberdinak salduko dituzte.

Horrez gain, *www.Ithaka.cat* atariko lagunen bidez, esku-muturreko solidario bat jarri dute salgai eta hauen salmentatik ateratako irabazien %40 oñatiarren proiektura joango da.

Erakunde eta enpresetan ere saiatuko dira laguntza lortzen.



www.destinomongolia.com

www.facebook.com/DestinoMongolia/

Crownfounding: www.lanzanos.com/proyectos/destinomongolia

Ekonomikoa edo material ere izan daiteke (kotxea, gurpilak, ordeko piezak, arropak, jana, erreabilitaziorako materiala...). Jasotako laguntzaren truke babesleen marka promozionatu dute komunikabideen aurrean egingo duten agerraldietan, sare sozialetan, eta autoan jarriko dituzten logo eta irudien bidez.

Laguntzak biltzeko fasea bukatu ondoren, txosten zehatz bat jarriko dute webgunean, bildutako euro bakoitza nora bideratuko den zehaztuz.

Gainera, bidaiari egunez egun jarraitzeko aukera egongo da 'destinomongolia' blogaren, eta sare sozialen bidez, eta jarraitze-track baten bidez.

Sergio eta Sergiren helburua da ahalik eta laguntza gehien batzea bidaiari ekin aurretik. Bidaiaren kostua (gasolina, aseguruak, ostatuak, jana eta bueltako hegaldia) beraien poltsikotik ordainduko dute.

SAN MARTINEN
1. fasea martxan

italde
Ramon Irizar kalea 2
T. 943 78 27 07
www.italde.com

3 logela 186.000,-€-tik (+ IBI)
KOKAPEN ONENEAN !!

UDALEKO BATZORDEAK



Hirigintza eta Zerbitzuak

Lurdes Idoiaga (EAJ), Jon Kepa Gerrikagoitia (EAJ), Xabier Berridi (Zerbitzu teknikaria), Iñaki Landa (Hirigintza teknikaria), Irati Etxeberria, batzordeko burua (EH Bildu) eta Mikel Biain (EH Bildu)

Udal aurrekontuaren zatirik handiena (%30,5) hartzen du Hirigintza eta Zerbitzu departamentuak. Proiektu potoloak ditu esku artean eta, gainera, etorkizuneko Oñati diseinatzeko hasteko Hiri Antolamendurako Plan Orokorra egin nahi dute. Irati Etxeberria batzordeko burua azaldu dizkigu egitasmoak.

Oñatiko Hiri Antolamendurako Plan Orokorra (HAPO) egitea da udal gobernu taldearen helburu nagusietako bat agintaldi honetan. Zertarako da HAPOa?

Hiri Antolamenduko Plan Orokorra Oñati etorkizuneko nolakoa izango den pentsatzeko eta antolatzekeo esparru bat ematen digu, epe luze-
ra definitzen duena zein izango den udalerriko lurzorua
“irudia”, hirigintza-bilakaera eta okupazioa. Udalerriko
gizartearen, ekonomiaren eta ingurumenaren garapen-
ereduak aztertzekeo eta erabakitzeko tresna bat da.

HAPOa lantzekeo, sektore ezberdinetako herritarrez osatutako Aholku Batzorde bat eratu nahi duzue. Nola egongo da osatuta eta zein izango da bere egitekeo? HAPOaren berrikuspenean herritarrek parte hartzekeo foro bat izango da, ez bakarria baina bai garrantzitsua. Izenak

DATUA

6.065.495
euroko (%30,5)
aurrekontua du
Hirigintzak

dioen bezala aholku ematekeo kontseilua da, erabakiak ez dira lotesleak. Herriko elkarteak, gobernu ordezkariak eta oposizioa daude ordezkaturak, denak maila berean dutelarik hitza eta botua. Herriko hainbat elkarte gonbidatu ditugu eta ekainean osatuko da formalki Aholku Kontseilua.

Ekainean Atzeko Kaleko beheko aldea oinbideratzeko lanak hasiko dira. Horrekin batera erdiguneko trafikoan hainbat aldaketa egingo dira, ezta?

Atzeko Kaleko oinbideratzea eta beste aldaketa guztiak Mugikortasun Planean jasota

daude, 2014an partehartze bidez egin zena. Helburua da kasko historikoan oinezkoen lehentasuna ematea, guztiontzako irisgarritasuna eta ingurumen kalitatea hobetzekeo.

Atzeko Kaleko lanak bukatu ostean (iraila bukaerarako espero da) Ramon Irizar-etik Portu Kalerako pasoa arratsaldean istea da gure asmoa (baimendutako ibilgailuentzat izan ezik). Eta Txaketuako bidegurutzerako ere antzekeo soluzio bat lantzen ari gara.

Horrekin batera, kasko historikoaren inguruan apartakaleko rotatorio sistema bat ezarriko da, 30-60 minutuz doan kotxea uztekeo lekuekin, bertako dendak eta zerbitzuak erabiltzen ahalbideratzeko.

Hirigintza arloan aurten inbertsio potoloak egin asmo dituzue Zubillaga auzoan, Etxaluze, Olakua eta San Martingo jolas guneaetan,



Oñatiko Hiri Antolamendurako Plan Orokorra (HAPO) egiten hasiko gara aurten. Oñati etorkizuneko nolakoa izango den pentsatu, antolatu eta definitzekeo aukera ematen duen tresna da HAPOa



IRATI ETXEBERRIA | Hirigintza batzordeko burua **”**

Atzeko kaleko beheko aldea oinbideratzeko lanak amaitu ostean Ramon Irizarretik Portu Kalerako pasoa arratsaldean ixtea da asmoa

Gorritxitxin... Zertan dira? Zubillaga auzoko berritze lanak prozedura negoziatuz esleituko dira maiatzean zehar.

Gorritxitxiko (Musika Eskola ingurua) proiektua maiatzaren 15erako esku artean izatea espero dugu eta lanak ikasturteko etenaldiarekin batera hasiko dira.

Etxaluzeko parkearen eraberritze proiektuan arkitekto talde bat lanean ari da eta maiatza hasieran aurkeztuko digute euren asmoa.

Olakuako eta San Martingo jolasguneetarako paisajista batek lan proposamen bat prestatu du eta maiatzean zehar aztertuko dugu.

Zerbitzuen arloan LANBUS amaitutzat ematea erabaki duzue eta HERRIBUSA abian jartzeko asmoa duzue. Zertan da?

Udalak LANBUSekin zuen hitzarmena orain dela bizpahiru urte bukatu zen arren, udalak laguntza bat (kostuaren herena) ematen zion Lanbus zerbitzuari orain dela hilabete arte. Kontua da, Lanbus-ek enpresa pribatu batzuetako langileei bakarrik ematen zuela zerbitzua azken Udalak laguntza eteteko arrazoia. Kontuan hartuta, gainera, laster HERRIBUSA martxan jarriko dugula.

Proba piloto bezala urtean

zehar jarriko dugu martxan Herribusa (zehaztu gabe dago oraindik ibilbidea) herritar guztiarentzat. Aurrera begira, aukera egon liteke, Lanbus-en onuradun nagusiak diren enpresak erabakitzen dutenaren arabera, Lanbus zerbitzua Herribus proiektuan integrazeko hitzarmen baten bidez.

Azaroaren 1etik aurrera kale garbiketa zerbitzua zuzenean kudeatzea erabaki du Udalak, eta horretarako 10 langile kontratatuko ditu. Noiz egingo da hautaketa?

Maiatzeko lehen hamabostaldirako oinarriak onartuta izango ditugu, eta honekin batera abian jartzen da deialdia eta hautaketa prozedura.

Ingurumen arloan, energia aurrezteko hainbat inbertsio egiten dihardu udalak: kaleko argiteria berritu, biomasa bidezko berokuntza sistema udaltzaingoan... Orain udaltzeko berokuntza sistema ere

aldatuko duzue, ezta?

Energia efizientzia hobetzea da gure helburua, eta horretarako PAES programa jarraitzen dugu, non urtero hainbat ekintza planifikatzen diren. Iaz pellet bidezko berokuntza ezarri zen udaltzaingoan eta bake epaitegian, eta aurten udaltzean gas bidezko berokuntza ezarriko da, orain arte berogailu elektrikoak erabiltzen baitira, horrek dakarren gastu eta inefizientziarekin. Gogoratu behar da aurreko agintaldian Urgain eskolako gasoil sistema zaharra ere ordezkatu zela gas natural sistemara eta Olabarrietako etxebizitza sozialak ere pellet sistemara egokitu zirela.

Kale-argiteriari dagokionez, urtero lez eremu bateko argiak berrituko ditugu aurten ere, kontsumo baxuko luminariak jarri. Aldi berean, iaz berritutako luminarien argi maila neurtzen ari gara zenbait lekutan, argitasun nahikoa ematen dutela ziurtatzeko.



JON KEPA GERRIKAGOITIA / EAJko ordezkaria Hirigintza batzordean

” Herritarren iritziarekin bat egiten dugu: herriko paretak inoiz baino zikinago daude

Herri Antolamendurako Plan Orokorra (HAPO) idaztea da gobernu taldearen helburuetako bat agintaldi honetan. Nola ikusten duzue?

2000. urtean Estrategi Plan bat burutu zuen Udalak, arlo ezberdinetako (enpresa, nekazaritza, hezkuntza, pertsona nagusiak, ezinduek, gazteak...) eragileekin batera, eta hango ondorioekin onartu ziren Arau Subsidiarioak 2006an, herri antolamendurako baliogarriak izan direnak. 10 urte pasa ondoren, egokia da berraztertze prozesu bat martxan jartzea.

Hirigintza arloan hainbat obra (Atzeko Kale, Zubillaga,

etxaluze eta Olakuako jolas parkeak...) egiteko asmoa du Udalak. Nola ikusten dituzu?

Herritarren beharrei erantzun eta Oñati herri ibilgarria egingo duten obrak begi onez ikusten ditugu, eta jasota daude gure programan.

Hori bai, ondo planifikatuta, lehenetsiak ondo aztertuta eta baliabide ekonomikoak posible egiten duten neurrian beti ere, udal kontuak hipotekatu gabe egiten direnean.

Bestalde, herritarren iritziarekin bat egiten dugu esaten dutenean herriko paretak inoiz baino zikinago daudela. Penagarria da Oñatiko gune historiko ederra pintadaz be-

teta, zikina eta desitxuratuta ikustea. Herriak ematen duen irudia ez da etorkizunerako eredia.

Zerbitzuen arloan, ez duzue begi onez ikusten kale garbiketa zerbitzua udalak bere gain hartzea. Zergatik?

Udal Gobernuak esan du, kale-garbiketa zerbitzua udalak bere gain hartzearen arrazoia nagusia FCC k eman duen zerbitzuaren kalitate eskasa izan dela, baina guk uste dugu Udalak kontratu hau ez duela ondo kudeatu. Badaude arauak eta mekanismoak zerbitzuaren kalitatea eta baldintzak betearazteko. Baina

kasu honetan, kudeaketa ezaren ondorioz, erabaki politiko batek 10 lanpostu arriskuan jarri ditu eta horrekin ezin gara ados egon inondik inora.

EAJk 2009an bultzatu zuen Lanbus zerbitzua kendu du orain gobernu taldeak, eta Herribus zerbitzua abian jartzeko aukerak aztertzen ari da. Auzo-taxia ere jarri du.

HERRIBUS eta LANDABUS (BILDUK auxo-taxia deitzen duena), zerbitzuak EAJren agintaldiko proposamenak dira, udal gobernuak bere aurrekontuetan onartu dituenak. Gu bat gatoz bi zerbitzuak martxan jartzearekin baina ondo aztertu eta dimentsionatuta. LANBUS apustu sendoa izan zen eta ordeko zerbitzurik martxan jarri gabe, kentzearekin ez gaude ados.

Udal Plangintzako Aholku Kontseilua osatzeko deialdia ireki du Udalak



Hirigintza eta lurralde antolaketarekin zerikusia duten erabakietan parte hartzeko interesa duten herriko taldeei luzatzen die gonbitea

Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legeak herritarren parte-hartzearen eta informazio publikoaren printzipioak biltzen ditu, besteak beste. Eta ildo horretan, Plan Orokorra onartzeko eskumena duten Udalei herritarren ordezkari osatutako Aholku Batzordeak eratzeko betebeharra ezartzen die.

Oñatiko udalak 2008an eratu zuen lehen aldiz Udal Plangintzako Aholku Kontseilua, eta orain organo hori berreskuratu, berrosatu eta biziberritu egin nahi du udal gobernu taldeak. Horretarako, Aholku Kontseiluaren egitura, eginkizunak eta jarduteko modua zehazten duen araudia onartu du. Hala, alde batetik kontseiluaren osaera aldatu da, kolektibo berriei leku eginez, Oñatiko ehun sozialaren ordezkagarritasuna bilatu asmoz, eta, bestetik, funtzionatzeko moduak zehaztu dira, joko-arauak finkatuz.

ZERTARAKO AHOLKU KONTSEILUA?

Agintaldi honetarako udal gobernuak duen helburu nagusietako bat Hiri Antolamendurako Plan Orokorra (HAPO) idazten hastea da (udalak 2006an onartu zituen Planeamendurako Arau Subsidiarioak berrikusiz). HAPOaren helburua da udalerriko lurzoruak datozen urteetan nola erabiliko diren definitzea eta arautzea.

Hirigintza eta lurralde antolamenduko gaiak osagai tekniko indartsua dute. Baina hori ez da oztopo herritarrek, beren

bizipen, ezagutza eta jardunetik abiatuz, beren ikuspuntua eman, besteena entzun eta ekarpenak egiteko. Izan ere, herritarrak baitira hirigintza eta lurralde antolamendu politiken hartzaile zuzenak eguneroko bizitzan.

Udalak hainbat bide jarriko ditu HAPOaren idazketan herritarrek parte har dezaten, eta Udal Plangintzako Aholku Kontseilua berrabiaraztea da horietako bat.

AHOLKU KONTSEILUAREN EGITEKOA

Izenak berak dioen moduan, aholkua emateko organo edo foroa izango da Aholku Kontseilua. Bertan hartzen diren erabakiak ez dira lotesleak izango Udalarentzat, baina kontuan hartuko dira, eta hala gertatzen ez denean, erantzun arrazoitua jaso beharko dute.

Azken finean, hirigintza planak gizartean adostu daitezten ahalbidetzea da organo honen helburua, hirigintzako ondasunak babestu eta udalerriarren garapen zentzuzkoa eta sostengagarria bultzatuz.

Aholku Kontseiluan herriko elkarteetako ordezkariak eta udal gobernuko nahiz oposizioko udal taldeetako kideak egongo dira, denek maila berean dutelarik hitza eta botoa. Erabaki guztiak plenoan edo osoko bilkuran hartuko dira, ahal dela kontsentsuz, eta bozketa beharrezkoa bada, gehiengo soilez.

Orain eratuko den Aholku Kontseilua udalbatzaren agintaldia amaitu arte (2019) egongo da indarrean.

Oñatiko Hiri Antolamendurako Plan Orokorren deiseinuan parte hartuko du herritarren Aholku Kontseiluk

AHOLKU KONTSEILUA

EZAUGARRIAK

- Denboran iraunkorra (Udaleko agintaldiekin batera berrituko da)
- Informatzeko, eztabaidatzeko, aztertzeko, proposamenak egiteko eta adostasunak lortzeko gunea
- Organo aholku emailea da

PARTAIDEAK:

Kontseiluan parte har dezakete beraien jarduera ondorengo arloetan gauzatzen duten kolektiboek: alderdi politikoak, auzotasuna, lehen sektorea, ondarea, kirola, dibertsitate funtzionala, mugikortasun iraunkorra, merkataritza eta ostalaritza, enpresa mundua, hirugarren adina, genero berdintasuna, kultur- eta jatorri- aniztasuna eta eskola komunitatea.

BALDINTZAK:

Euskal Autonomia Erkidegoko Elkarleen Erregistro Orokorrean inskribatuta egon beharko dute. Formalki erregistratuta ez dauden kolektiboen kasuan, egiaztatu beharko dute Oñatiko udalerrian esku hartzea edo sustraituta egotea.

MODUAK ETA EPEA:

Kontseiluan parte hartzeko eskaera idatziz egin behar da, horretarako sortu den eskaera orria betez, eta dokumentazio osagarria erantsi beharko da. Eskaerak egiteko azken eguna maiatzaren 18a izango da. Udal bulegoetan edo udalaren webgunean (www.oñati.eus) eskura daitezke eskaera orriak.

Maiatzaren 18a

Aholku Kontseiluan parte hartzeko eskaerak egiteko azken eguna

Andrea Azkoaga
Interiorista
Santa Marina 4
Tel. 943 71 19 81
Mug. 628 073 369
www.andreaazkoaga.com

Ormazabal

Barne arkitektura • Proiektuak • Erreformak • Gremioen koordinazioa • Dekorazioa • Altzariak • Zeramika • Iluminazioa

LANPOSTU DEIALDIAK

Kale garbiketa zerbitzurako 9 langile kontratatu dituzte Udalak

Urritik aurrera udalak zuzenean kudeatuko duen kale garbiketa zerbitzurako 7 peoi eta 2 peoi-gidari kontratatuko deialdia egitea erabaki du udalbatzak.

Peoien hautaketa prozesuan parte hartu ahal izateko bete beharreko baldintzak hauek dira: 16 urte beteta edukitzea, Eskola ziurtagiria edo baliokidea den titulua izatea, eta B gidabaimena edukitzea. Peoi-gidarien kasuan, C gidabaimena eta fitosanitarioen aplikatzailearen karneta eduki beharko dute hautagaiek.

Baterako zein besterako, 1. Hizkuntz Eskakizun maila egiaztatu beharko dute 2019ko abenduaren 31a baino lehen.

Euskarazko azterketaz gain, hautagaiek azterketa teoriko eta praktikoa egin beharko dute, eta merituei dagokienez, lan eskarmentua eta formazio osagarria baloratuko dira.

Peoien plazetako bat minusbaliatuen txandarako (%33ko minusbaliotasuna gutxienez) gordetako da, eta betetzen ez bada, txanda librean emango da.

Orain Gipuzkoako eta Estatuaren aldizkari ofizialetan argitaratuko da deialdia, eta horik aurrera 20 egun naturaleko epea egongo da eskaerak aurkezteko.

EAJ aurka

EAJk aurkako botoa eman zuen, bi arrazoiengatik: alde batetik lan eskarmentua 18 punturekin (legeak onartzen duen gehiena) baloratzeak desoreka sortzen duelako beste hautagaiekiko; eta euskara mailaren derrigortasun data 2017tik 2019ra atzeratu delako.

Alkateak erantzun zuen egoea berezi bati irtenbidea emateko neurri bereziak direla.



Aita Lizarralde kalean semaforoak jarriko dituzte Udalak oinezkoen segurtasuna hobetzeko

Aita Lizarralde kalean ibilgailuak abiadura handia hartzen dutelako kekek jaso izan dituzte Udalak behin baino gehiagotan. Kontuan hartu behar da, San Martin auzunea handitzearekin batera, gero eta oinezko gehiago dabilela Martzelino Zelaia eta Lizarralde kaleen arteko bidegurutzean. Hori dela eta, pasabide horretan bere garaian egon ziren semaforoak berreskuratzea erabaki du Udalak, oinezkoen segurtasuna hobetzeko asmoz. Botoidun semaforoak izango dira, oinezkoek sakatzen dutenean gorri jartzen direnak. Gainera, argi puntu bat ere edukiko dute, zebrabidea egoki argitzeko.

San Martingo 'running' zirkuitoa eta ur txorrotaden proiektua martxan jartzea eskatu du EAJk

EAJk proposatu eta 2016ko udal aurrekontuetan jasota dauden bi proiektu lehenbailehen martxan jartzea eskatu diote jeltzaleek udal gobernari. Alde batetik, San Martingo zuhaitzian ibiltzeko eta korri egiteko zirkuito iraunkorra egokitzeaz gain, gimnasia egiteko aparatuek eta haurrentzako jolastokia jartzea eskatu du EAJk.

Bestetik, herri erdiguneko jolastoki eguzkitsuren batean 'ur txorrotadak' jartzea eskatu dute jeltzaleek, haurrek bero egunetan non jolastu eta non freskatu izan dezaten. Bi proiektu hauei probetxu gehien udan aterako zaienez, lehenbailehen martxan jartzea eskatu du EAJk.

Onartutako inbertsio batzuk datorren urtera atzeratu izanak ika-mika eragin du oposizioa eta gobernuaren artean

EAJren udal taldeak bere kezka azaldu du prentsa ohar bidez, martxoko osoko bilkuran EH Bilduk hartutako zenbait erabakiren aurrean. Zehazki, abenduan (EAJren aurkako botoz) onartu ziren 2016ko udal aurrekontuetan egindako aldaketak kritikatu dituzte EAJk, onartuta zeuden inbertsio batzuk (4,7 milioitik, milioi bat) 2017ra atzeratu egin behar izan baititu, "Txosten Finantziarioa eta Aldundiaren esku hartzea saihesteko asmoz" jeltzaleek adierazi dutenez. Planifikazio eza eta inprobisazioa egotzi dio EAJk gobernu taldeari. Gastu arruntak nabarmen gora egin duela ere salatu du talde jeltzaleak.

Udal gobernu taldeak berriz, gezurretan eta trabak jartzen aritzea leporatu die jeltzaleei. EH Bilduk azaldu du, krisi garai gordinenean ere aurrezki garbi positiboa mantendu dutela (herritarrei presio fiskala minimoetan eutsiz, gainera) eta Udalaren zorpetze maila gaur egun minimo historikoetan dagoela. "Urtarrilean aurkeztu genituen agintaldi osorako egitasmoak, eta urtez urte gauzaten joango gara udalaren ekonomia eta finantza oreka zainduz. Guk lanean jarraituko dugu, beste batzuk matrakari eragiten dioten bitartean".



'Selma Huxley Barkham' izena eramango du Udalak emango duen ikerketa beka batek

Historia generoaren ikuspegitik aztertzeko Udalak laster emango duen beka 'Selma Huxley Barkham' izena eramango du, Oñatin hogeituz (1975-1992) bizi izan zen ikerlari ingeles-kanadiarraren omenez. Halaxe eman zuen jakitera Mikel Biain alkateak Huxley andeari eskainitako omenaldian.

Selma Huxleyk ekarpen garrantzitsua egin zion Euskal Herriko eta Kanadako itsas historiari. Ternuan eta Labradorren XVI. mendean egon zen euskal bale-industria deskubritu zuen (baleontzien portuak, hondoratutako euskal galeoiak...). Egun 89 urte dituen Huxley andearak hunkituta jaso zuen Udalak eskainitako errekonozimendua, eta txalotu egin zuen ikerketarako laguntza emateko ekimena.

Zubillaga auzoa eraberritzeko lanak lizitazioa ateratu ditu Udalak

Zubillaga auzoko urbanizazioa berritzeko asmoa du Udalak, Sestra Ingeniería y Arquitectura enpresak idatzitako proiektuaren arabera. Hiru fasetan egingo dira lanak. Lehenengoan, auzoko 20 eta 34 zenbakien arteko espaloia konpondu eta autobus geralekua prestatzea aurreikusten da, eta udalak lizitazioa hasia erabaki du. Lanek 96.908€-ko (BEZ kanpo) aurrekontua dute, eta hiru hilabeteko exekuzio epea.

Gazte taldeei eta familia elkartei zuzendutako dirulaguntza deialdia

Herriko irabazi asmorik gabeko gazte taldeek eta haurren sustapenari zuzendutako familia elkarteek 2016an zehar garatuko dituzten jarduerak egitarauak diruz laguntzeko deialdia egin du Udalak. Urteko programazioa, kultur sormena edota ez-ohiko jarduerak sustatzeko laguntzak izango dira. Dirulaguntza jaso ahal izateko, talde eskatzailearen kideen erdiak, gutxienez (edo norbanakoak) 12-30 urte bitartekoak eta Oñatin erroldatutakoak izan beharko dute. Deialdia GAOn argitaratu ondoren 30 eguneko epea irekiko da eskaerak aurkezteko.

SAN MARTIN GUNEAN

**GARAJEAK eta
ETXEBIZITZAK**

SALGAI

PROMOZIO BERRIA 2,3 eta 4 logela 169.235€ -tik !!



MOJASORO S.L. | Informazioa: 689 420 761 | Eraikitzailea: Egaralur www.egaralur.net



OÑATIKO OSASUN ZENTROAK 'Joint Commission International'-en kalitate egiaztatgia eskuratu du

Osasun arloan espezializatua, nazioarte mailan prestigio handia duen Kanadako erakundea da *Joint Commission*, eta bertako ebaluatzaile taldea bi egunetz (martxoak 16 eta 17) egon ziren Oñatin, kalitatearen adierazle diren estandarrak neurtzen.

Azterketa zorrotza izan zen; osasun zentroko profesional guztien lana ebaluatzeaz gain, pazienteak eta herriko zenbait elkarte eta erakunde (udaleko Gizarte Zerbitzuak, jubilatuen...) ere elkarriketatu zituzten.

Osasun zentroko zuzendaritzak adierazi duenez, harro egoteko modukoa da halako prestigioa duen erakunde batek kalitate egiaztatgia aitortu izana. Osakidetzan agiri hau lortu duen lehen osasun zentroa da Oñatikoa.

1.080 euroko gutxieneko pentsioa eskatzeko sinadurak batuko ditu Duintasuna elkarteak

Hilaren bukaerara ailegatu ezin den jende gehiegi bizi da gure lur eremuan, eta horietako gehienak emakumeak dira, Gipuzkoako Jubilatu eta Pentsiodunen Duintasuna elkarteak salatu duenez.

Europako Karta Sozialean jasotzen denez, 1.080€-koa izan behar luke gutxieneko pentsioak. Horregatik, eskaera argia egitera doaz eta horretarako sinadurak batuko dituzte Euskal Herri osoan. Oñatin ere maiatzean jasoko dituzte firmak, eta aurretik jubilatuen elkarte eta herriko beste esparruetako ordezkariekin bilduko dira.


Eskaerak Legebiltzarrean eztabaidatzeko helburua izango luke, eta hemendik hala erabakiz gero, Jaurlaritzaren esku geratuko litzateke baietza ematea.

Sinadurek indartzen duten eskakizuna hauxe da: Jaurlaritzak onar dezala Aurrekontu Publikotik osatzea 1080€-rainoko pentsioa Komunitate Autonomoan.

Francisco Esnalen omenezko seilua argitaratu du Oñatiko CECA elkarteak

Francisco Esnal y Anso (1868-1916) Oñatiko parrokiako abade eta organujolearen omenezko seilua atera du Oñatiko Ceca (Filatelia eta Numismatika) elkarteak, haren heriotzaren mendeurrena beteko baita maiatzaren 6an.

Donostiarra sortzez, Oñatin bete zituen bere zereginak Esnalek, ume eta nagusiei kantua irakatsiz, besteak beste. Parrokiko korua ere berak sortu zuen. Konposatu ere egiten zuen, eta berea da, esaterako, urtero Errosario egun bezperan abesten den Arantzazuko Amaren Salbea. Turismo bulegoan eskura daiteke Esnalen omenezko seilua.




ZURICH

M^a del Mar Urrutia Negueruela

Motxion Kalea 5 behea
Tel/Fax: 943 78 30 09 • Murgikorra: 620 77 66 20

HARALD LINDER

ETXETAN ERA GUTZIETAKO KONPONKETAN
PERFORATZAILAK, LURRI FURAZATZAILAK, ANBIBAK, PINTURRI LARRAK...



DISKONBORTZAILA ETA MONTATZAILA
BARRAZKATZAILA, HERRIKATZAILA ETA ASKATZAILA
OSARIA, TUBU-KANAK, ZUBOEN ERRETA, HERRIKATZAILAK

695 78 91 04 - 943 04 47 77

'Bizipoz' programan landutako proiektuak aurkeztuko dituzte maiatzaren 20an

Martxoan jarri zuen abian Udalak, Enpresagintza fakultateko 'Want' Junior enpresarekin elkarlanean, 55 urtetik gorako herritarrei zuzendutako Bizipoz programa. Taldean lan eginez, herrirako interesgarriak diren proiektu sozialak sortu eta aurrera eramatea zen helburua, adin horretako pertsonen esperientzia eta jakituria baliatuz, eta bide batez zahartzaro aktiboa sustatzea.

Guztira 18 herritarrek parte hartu dute Bizipoz programan eta lau proiektu ezberdin landu dituzte. Eta hain zuzen proiektu horien aurkezpena egingo dute maiatzaren 22an kultur etxean (18:00).

INGELESEKO TALDEA

Bizipoz programaren barruan egon diren lau taldeetako batek hizkuntzen gaia landu du, bidaiekin lotuta. Eta orain Ingeleseko mintzapraktika talde bat sortzea erabaki du, komunikatzeko gaitasuna lantzeko helburuarekin. Ekainaren 6an informazioa emateko bilera irekia egingo dute Pake Lekun, alargunen gelan, 16:00etan.



Bizipoz programan parte hartu duten kideetako batzuk

Edurne Galartza eta Regino Biain omendu dituzte

Intxortako Erresistentzia Egunaren baitan, 1936ko altxamenduan errepresioa jasan zuten 40 emakume omendu



zituzten, tartean Edurne Galartza (1914-2006) oñatiarra. Elgetan eginiko omenaldian Edurneren ahizpa Eli-k jaso zuen oroigarria Mikel Biain alkatearen eskutik. Bestalde, Intxortako ekitaldiaren harira, Oñatiko EAJk ere bere omenaldia eskaini zien Edurne Galartza zenari eta Regino Biaini. Aitzindariak, ekintzaileak, eragileak eta pertsona eredugarriak izatea eskertu zien EAJk.

Errefuxiatuei laguntzen jarraitzeko deia luzatu du Hotz-Oñati taldeak

Errefuxiatuei laguntzeko Hotz-Oñati taldeak martxoan antolatu zuen elkartasun kanpaina arrakastatsua gertatu zen. Danera 6.574 kilo material batu ziren (koltxoi, manta eta haur txikiak eramateko motxilez gain) eta 2.000 euro inguru ere bidali ahal izan ziren Calais-era, janaria erosteko. Hotz-Oñatik eskertu egiten du herritarren elkartasuna, baina laguntzen jarraitzeko deia luzatu du, herriko taberna eta establezimendu ezberdinetan dauden itxulapikoen bidz, edo Euskadiko Kutxan Hotz-Oñatiren izenean zabaldu den kontuaren bitartez.



'ELTZIA' EGUNA ospatuko da ekainaren 4an



Eltzian (ETEO zaharrean) diharduten herriko kultur eta gizarte arloko taldeek antolatuta, I. Eltzia Eguna ospatuko da ekainaren 4an. Bertako lana eta dinamika herritarrei erakutsi eta, bide batez, Eltzekideen arteko harremanak sendotzen hasteko aukera egongo da bertan. Musika taldeentzat egokitu berri diren lokalak ikusteko aukera ere egongo da. Egund osoko jaiak izango da. Umeentzako jolasak, dantza-bertso-triki poteoa, bazkari herrikoia eta kontzertuak. Gonbitea eginda dago.

ZURRUST
TABERNA • JATETXEA
Bidebarrieta 6
Tel.: 943 71 62 96
20560 OÑATI

FAGOR
INDUSTRIA TALDE KOOPERATIBOA





ARGITARATZAILEA: Oñatiko Udala
ZUZENDARIA: Iñigo Arregi
PUBLIZITATEA: Aratz Losada
DISEINUA ETA MAKETAZIOA:
Aratz Losada

KOLABORATZAILEAK: Jerardo Elortza
eta Udal Euskaltegia
INPRIMATEGIA: Gertu
Tirada: 5.500 ale
Lege gordailua: SS-357/91

Posta-e: kontzejupetik@onati.eus
Publizitatea: publi@onati.eus
Bidaurreta Dorrea, Olakua auzoa
20560 Oñati (Gipuzkoa)
Tel.: 943 78 20 72

Kontzejupetik aldizkariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

GUTUNAK

Azaleko argazkia: Natxo Santos

Atal honetan, gutunek ezingo dute 1.800 baino karaktere gehiago izan. Aldizkariko erredakzioak eskubidea izango du gutunak laburtzeko. Gutunarekin batera igorlaren izen abizenak eta harremanetarako telefonoa bidali behar dira. Gutunak, egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira.

Bidaurreta Dorrea z/g • 20560 OÑATI | Tel.:943 78 20 72 | Posta-e: kontzejupetik@onati.eus

Lasterbidean lasterketa 2016

Jose Mari Zugasti

Ekainaren 5ean laugarrenez antolatuko da **LASTERBIDEAN** nazio elkartasun lasterketa. Lehenengo hiru edizioak Oñartzunen (Gipuzkoa), Larrabetzun (Bizkaia) eta Berriozar (Nafarroa) izan ziren, hurrenez hurren. Oraingoan ere herrialdez aldatuko da eta Arabako Araia herrian egingo dugu.

Kirolaren eremutik eginikoa eta kirolean oinarritutako elkartasun herri ekimena da Lasterbidean lasterketa. Euskal errepresaliatu politikoen eta beraien gertuko eskubideen aldeko elkartasun adierazpen zintzoa egin nahietik sortu zen orain lau urte. Izan ere, ehunka dira beren etxetik urrun bizi diren euskal herritarrak: espetxean, ihesean edota deserrian. Egun, sinestezina badirudi ere, beraien eta beren senideen eskubideak urratuak izaten jarraitzen dute. Beraz, egoera honetan geldirik ezin garela egon adierazteaz gain, **LASTERBIDEAN** etik izerdia botaz korri egiten jarraituko dugula ozen esan nahi dugu.

Aurreko hiru aldietan egin bezala, etxetik ehunka kilometrotara dauden euskal herritarrak Euskal Herrira ekartzeko dagoen herri gogo koloretzu eta bizia ehunka korrikalarik irudikatuko dugu Araia kale ta aldatan. Honela, banantzen gaituen distantzia laburtuko dugu ekainaren 5ean. Errepresaliatuek ere parte hartuko dutelako beren lagun eta senideei Araia joateko gonbitea eginez edo beren eskulanak sari gisa emanaz.

Egun osoko egitaraua izanen da.

Goizean bi motatako lasterketekin hasi eta arratsalde partera arte zer ikusi eta non parte hartu izango dute bertaratuko direnek: lasterketa laburra eta luzea, zozketak, sari banaketa, ekitaldia, kale animazioa, herri bazkaria...

Kirolaren bidez eta izerdia botaz elkartasuna eman nahi duen orori dei egin nahiko nuke. Aurtengoan 1500 lagunek korrika egitea lortu nahi dugu! Lortuko dugu! Elkartasunaren bidez tarteko hemuga gaintitu eta 26 urteko ibilbide luze honen amaierako marrara beso zabalik iritsi nahi dugu... besarkada bana errepresaliatu guztiei, **LASTER BIDEAN**, **LASTER ETXEAN!**

Oñatiko EAJren matraka

Mikel Biain Berraondo, Oñatiko Udal Gobernu Taldearen izenean

Berriz ere badatorkigu matraka berdinarekin Oñatiko EAJ. "Planifikaziorik eza" eta "inprobisazioa", behin eta berriz, mila aldiz errepikatuz gezurra egi bihurtu nahi horretan, Alemaniako Goebbels propaganda buruak esaten zuen hori praktikan jarritz. Proganda alde batera utzi eta datuetara joanda:

- Udalaren zorpetze bizia: 2010ean: 6.366.107€; 2015ean: 2.055.000 € (%66ko jeitsiera)

- Udalaren aurrezki garbia: 2010ean: 1.562.400€; 2015ean: 1.550.172 € (Mantendu)

Esan beharrik ez dago, ze garrantzi duen krisi garai gordinenean ere aurrezki garbi positiboa mantentzeak, sarrerak gastuen gainetik izatea alegia.

Presio fiskala minimoetan mantenduta gainera. Zorpetze maila minimo historikoetan dago gaur egun.

2011 aurretik hirigintza arloan udalak izaten zituen aparteko diru sarreak aspaldi desagertu ziren. Egungo udal gobernuari eta aurreko agintaldikoari ohiko baliabideekin aurrera egitea egokitu zaigu. Adibide bat: 2008an bakarrik, hirigintzako lur salmenta eta aprobetxamenduengatik udalak 4.200.000 € ingresatu zituen. 2011-2016 tartean, 1.448.224 € izan dira guztira. Joan ziren EAJ-k amesten dituen "pelotazo" garaiak.

Kreditu aldaketarako espedienteak egin eta inprobisazioz jokatzeko leporatzen digute. Datu konparaketa bat: 2007-2010: 37 kreditu aldaketarako espediente. 2012-2015: 33. Ohikoa izan den prozedura alegia, ez ohiko diru sarrera bat edo kreditu behar bat sortu izan denean. Baina alarma mezua zabaltzeko edozerk balio du antza.

Oñatiko EAJ udal taldeak erakutsi du, ekarpenik ez egiteaz gain, trabak jartzea duela helburu. Ez dugu inoz somatu lankidetzarako prest agertu den oposizio arduratsua. San Martin izan zen adibide garbiena: gobernuak urbanizazioa aurrera ateratzeko plan-gintza proposatu eta EAJk ezezko borobila, epaitegietara joateraino gainera. Lotsagarria oposizioaren jarrera: egin ez eta egiten utzi ez. Zorionez epai hark ere agerian utzi zituen EAJren irakurketa eta asmo okerrak. Gaizki dihardugula eta Oñatik beste kudeaketa bat behar duela diote, beraien laguntza horretarako eskainiz gainera. Ironia hutsa.

Urtarrilaren 28an agintaldi osorako egitasmoak aurkeztu genituen, eta

urtez urte hauek gauzatzeko konpromisoa agertu, orain arte bezala udalaren ekonomia eta finantza oreka zainduz. Guk lanean jarraituko dugu beste batzuk matrakari eragiten dioten bitartean.

Normalizazio politikoa predikatzea eta aurpegia edukitzea

Maddi Txintxurreta (Oñatiko Ernai)

2014ko maiatzean, Debagoieneko Ernaiko kideok topaketa batzuk antolatu genituen Herrialde Katalanetako Arran gazte antolakundeko kideekin. Topaketa hauen helburua, bi herrialdeetan bizitzen ari garen egoerak elkarrekin konpartitu eta hausnarketarako espazio bat irekitzea zen.

Prestatu genituen jardueretako bat, gazte kataluniarrekin Debagoienan zehar bisita gidatu bat egitea izan zen: Arantzazura joan ginen Euskara batuaren sorreraz hitz egitera, Oñatiko atez atekako zabor bilketa sistema ezagutzeko aukera eman genien, Angiozarrera joan ginen AHTren obrak ikustera, Arrasaten kooperatibismoaz aritu ginen... eta Bergarako epaitegi parean ere geratu ginen torturaz hitz egiteko. Euskal Memoria taldeko kide bat ekarri genuen horretaz hitz egitera. Hitzaldi horren ostean etorri zen eguneko sorpresa.

Autobusera gindoazela, Ertzaintzaren

patruila bat agertu zen eta bi lagun identifikatu zituzten (hitzaldia eman zuena zen horietako bat). Beraien azalpena, baimenik gabeko kontzentrazio bat egin genuela izan zen. Lagun koadrila bat kalean eserita hitz egiten aritzea delitua da nonbait...

Duela gutxi 375 euroko isuna iritsi zaio Euskal Memoria taldeko kide horri. Hori ikusita, barregura besterik ezin dugu sentitu EAJko kideak askatasunaz, tolerantziaz eta bizikidetzaz hitz egiten entzutean. Aurpegia behar da gero normalizazio politikoz hitz egiteko! Hau al da Eusko Jaurlaritzak eraiki nahi duen agertoki demokratikoa?

Benetan penagarria iruditzen zaigu beste herrialde batzuetako kideei hemen bizi izan den (eta bizi den) egoera erakutsi nahi izateagatik isun bat ordaindu behar izatea. Noraino iristeko gai zarete kaleak zuei gustatzen ez zaizkizuen diskurtsoetatik garbi mantentzeko ahalegin horretan? Kezkagarria da benetan PNV eraikitzen ari den "neofrankismo" egoera.

Tortura salatzeagatik zigortua

Aritz Arnaz Laskurain. Torturatua.

Polizia espainiarrak 8 lagun atxilotu berri ditu Nafarroan ustez tortura salatzen duen mural bat egiteagatik, Guardia Zibila iraintzearen akuzaziopean. Aztungal famatuaren egileak

eta berarekin atxilotutako beste kideek tortura basatiak salatu zituzten (laguntza alderantziz idatzita utzi zuen atxilotuetako batek bere sinaduraren orde). Torturaren eta isolamenduaren aurkako idatzia aurkeztu zuten eta Euskal Herrian zein espainiar estatuan oso eremu desberdinetako pertsona zein eragileen atxikimendu ugari bildu dituzte. Paco Etxebarriak eta bere taldeak torturaren inguruan egin duten lanak polizia guztiek (Polizia Nazionalak, Guardia Zibilak eta Ertzaintzak) modu sistematiko batean torturatu dutela baieztatzen du. Hor daude testigantzak, ikusi edo entzun nahi dituenarentzat. Hor daude torturak utzitako hildakoak, zaurituak, eta oraindik ere bizitakoa kontatzera ausartzen ez direnak.

Ni neu torturatua izan naiz bi aldiz Guardia Zibilaren eskutan 1991ean eta 1994ean, hori ahalbidetu duen lege anti-terroristaren babespean. Niri egindako basakerien testigantza ere hor dago Torturaren Aurkako Taldeak egin ohi zituen errekopilazioetan bildua eta epailearen aurrean salatua.

2014ko maiatzean bailarako gazte talde batek gazte kataluniar batzuei nire testigantza azaltzeko eskatu zidaten. Ni ez naute atxilotu Nafarroan gertatu den bezala, baina Ertzaintzak identifikatu egin ninduen eta 375€tako isuna jarri didate. Tortura salatzeagatik atxilotuak edo zigortuak izan behar dugu? Hori al da egun Eusko Jaurlaritzak egin nahi duena, gure testigantzak ezkutatu eta eurek alor honetan

Oineko tratamendu osoa
KAILUAK ONDDOAK AZAZKALAK
PAPILOMAK GOGORGUNEAK

Neurrira egindako silikonak
Oineko miaketa, plantilak

Podóloga
 Marta Frances Barbero
 Colegiada Nº. 038890334

Etxeko Zerbitzuak

644 136 419 | Kale Zaharra Nº 5 beh. esk. OÑATI | martafrancespodologia@gmail.com

izandako erantzukizuna ezkutatu? Ze zerbait argi badago da, hemen tortura erabaki politiko batzuen baitan exekutatu dela, hau da, Espainiako eta hementxo alderdien babesik gabe ez litzatekeela guzti hau gertatuko. Horregatik, berak beste batzuei exijitzen dien bezala, EAJri exijitzen diot ez ditzala torturaren aurkako hitzaldiak isunekin zapuztu eta aitor diezaiola herri honi torturaren aferan dagokion erantzukizuna, Ertzaintzak egindakoagatik eta besteekin egin izan dutenean beste aldeira begiratzeagatik. Bitartean torturatuok ez gara isilduko.

EAJk ez du gezurrik esan

Lourdes Idoiaga, EAJren zinegotzia

EAJ-PNVren lana gutxiesteko asmoz, manipulazioaz eta irainaz baliatu da beste behin Oñatiko alkatea. Hala ere, ez gara haren jokoan sartuko, hori ez baita gure erredua; ez da gure estiloa. Guk errespetua, etika eta duintasuna ditugu oinarri.

EAJk ez du gezurrik esan. 2016ko aurrekontuen harira, hauxe da esan duguna: gobernuak aurkeztutako aurrekontuek ez dituzte jasagarritasun eta oreka-irizpideak betetzen, ezta gastu-arauak ere. Horixe bera esan zuen kontu-hartzaileak ere bere txostenean (16. orrialdea). Txosteneko 10 eta 11. orrialdeetan, gainera, kontu-hartzaileak dio udalaren kaudimen ekonomikoa neurtzen duten 6 adierazleetatik, 4 negatiboak direla.

Orain arte esandakoa egia ez balitz eta gezurretan ibili izan bagina, gobernuak ez zituen 2017ra atzeratuko duela 3 hilabete onartutako inbertsiopartida batzuk. Jokaera horren aurrean, alkateak esan du "ohiko kreditu aldaketa" izan dela. Baina askoz neurri larriagoa da, hain zuzen, Finantza-Txostena egitea eta Aldundiaren esku-hartzea saihesteko neurria da. Guk adierazitakoa dokumentuen bidez frogatu daitekeen egia da.

Alkatearen hitzek helburu dute herritarren arreta desbideratzea eta justifikatu ezin dena justifikatzen saiatzea. Bere salaketek, osteraz, ez dute gure erantzunik merezi; alkateak irainetara eta salaketetara jo du, hartu duen erabakia defendatzeko. Gure ustean, hori ez da alkate bati dagokion

Kinttadak

1966an JAIOTAKOEN KINTTADIA

50 urte betetzen dute aurten 1966an jaiotakoek, eta urtemuga borobil hori ospatzeko kinttadia egingo dute ekainaren 11n bazkari batekin Etxe Aundin. Maiatzaren 31 baino lehen eman behar da izena, Laboral Kutxako zenbakian 20 euroko diru sarrerera eginginda.

1961eko irailetik 1962ko abendura bitartean jaiotakoek kintto afaria

Ekainaren 18an egingo dute kintto afaria Iturritxo jatetxean. Aurretik, hildako kinttoen aldeko meza Agustinoetan (19:30) eta poteoa (20:15 Izarraitzen) egingo dute. animatu eta eman izena (kurtxetxo@gmail.cpm / 615003117) ekainaren 10a baino lehen.

1984an JAIOTAKOEN KINTTADIA

Ekainaren 4an egingo dute kinttadia. Emailaz eta facebook bidez jakinaraziko dute laster zein kontutan eta zenbateko diru-sarrerera egin behar den.

Mahai ingurua



'KIROL EKINTZEN ANTOLAKETA: ERANTZUKIZUNA ETA SEGURATASUNAREN KLABEAK'

Kirol ekitaldiak (kirol federatua, aisialdiko kirola, ikuskizunak...) antolatzen dituzten herriko talde eta erakundeei bereziki zuzendutako hitzaldia-jardunaldia. Ekitaldi horiek antolatzerakoan hartzen diren ardurak eta erantzukizunak eta hauen inguruko araudiari buruzko saioa. Maiatzak 11, kultur etxean, 18:30-20:30. Sarrera, doan. Izena ematea komeni da.

Eskerrik asko Markel Irizarri

Bere agenda estuan tartetxo bat eginez, Udal Euskaltegiko ikasleekin solasean egon zen Markel Irizarri apirilaren 21ean. Oso gustora egon ziren bertan bildutako ikasle-irakasleak, eta lerro hauen bitartez eskerrak eman nahi dizkiete Markeli.



jokatze modua.

Dena den, EAJren kudeaketaren emaitza eta ondorioa begi bistan daude, eta herritarrek badakite bereizten; ondo baino hobeto bereiztu ere!. Guk oñatiarren interesen alde lanean jarraituko dugu, eta gobernu-jardura zorrotz jarraituko dugu, ardurarekin

jokatu eta proposamen berriak egingo ditugu. Lan horren lekuko dira, hain zuzen, 2016ko aurrekontuetan aurkeztu genituen proposamen guztiak.

Gu iraintzen saiatu ordez, hobe luke alkateak lanari ekitea, badu-eta nahikoa lan aurrekontuak kudeatzen. EAJk ez du gezurrik esan.

- Arazerixan -

>> Udalekuak 2016

- Udaleku irekiak. Izen ematea amaituta aurten, 412 haur izango ditugu 4 astetan zehar Oñatiko kaleak alaitzen. Aurten, lehenengo aldiz adin tartea luzatu da haurren eskaerei erantzunez, LH 6rarteko adinekoen izenematea onartzuz. Maiatzean hezitzaileen txanda izango da, izan ere Oñatiko Udalak 43 hezitzaile inguru kontratatuko ditu uztailean lanean aritzeko. Aurrez, formakuntza saioetan, aurtengo udalekuetako programazioa garatu beharko dute.

- Arte udalekuak. Arte Udalekuetako antolakuntzarekin ere ari da Haur eta Gazteria Saila. Izan ere, Arte Udalekuetako begirale izan ahal izateko izenematea maiatzaren 10ean zabalduko da, maiatzaren 20rarte. Artearekin lotutako hainbat gai ukitutako duten Udaleku hauek ekainaren 30etik uztailearen 22ra izango dira, goizeko 10:00etatik 13:00ak arte, eta bertan LH6tik DBH3ra arteko gaztetxoak ibili ahalko dira. Izenematea berriz, maiatzaren 30ean irekiko da, eta plaza kopuru mugatua egongo da, gehienez 15 gazte aritu ahalko dira.

>> Uztaileko azken asterako zaintza zerbitzu berezia

Aurtengo egutegia nahiko berezia dela eta, Oñatiko Udalak uztaileko azken astean, Oñatin geratuko diren haurrentzako zaintza zerbitzu berezia eskainiko du Txaloka ludotekan. Uztailearen 26tik 29ra izango da zaintza zerbitzu hau, goizeko 9:00etatik 13:00etara. Ekintzak 10.00-13.00tara izango dira, lehenengo ordu betean zehar haurra nahi duenean etorri ahal izango da. Eskaintza hau 2012-2006 bitartean jaiotako Oñatiko haurrentzako eskainiko da. Plaza mugatuak izango dira, gehienez 50 haur aritu ahal izango dira. Izen ematea maiatzaren 16tik 20ra izango da, Txaloka ludotekan, arratsaldeko 16:45etatik 19:45tara. Beraz, interesa izanez gero, etorri lehenbailehen Txaloka ludotekara, plazak bete aurretik. Zerbitzu honen prezioa 30 euro da eta ludotekan bertan ordainduko da.

>> Aurrekontu parte hartzaileak

Oñatiko Parte hartze eta Haur eta Gazteria sailek elkarlanean bideratutako prozesua aurkeztera gatoz oraingoan. Prozesu honek, 2017ko aurrekontuak banatzeko asmoz, haur, nerabe eta gazteei hitza ematea du helburu. Horretarako saio ireki batzuk antolatuko ditugu maiatza eta ekainean zehar. Ludoteka, Bertakotze eta Gaztelekuak ere parte hartuko dute prozesu osoan zehar. Lehenengo saioan udalaren funtzionamendua ezagutzeko aukera izango dute Oñatiko haur, nerabe zein gazteek. Hurrengo saioetan berriz, dinamika ludikoen laguntzaz, hauen nahiak eta hitzak jasoko ditugu kontuan izateko helburuarekin, eta bide batez aurrekontuak herritarragoak bihurtuz. Beraz, gazte zein haur guztiei animatu nahi diegu prozesuan parte hartzera, guztiok baitugu zer esana!



>> Gazte elkarten jardueretarako eta Sormenerako diru-laguntzak.

Deialdi honen helburua udalerriko irabazi-asmorik gabeko gazte taldeei, edota haurren sustapenari zuzendutako familia elkarteei, diruz laguntzea da. Taldeek, 2016 urtean garatuko dituzten jarduerak eta egitarauen interesak Udal Haur eta Gazteria Batzordeak dituen helburuekin bat etorriko da. Diru-laguntzak honako ataletan oinarrituko dira: Urteko programaketa - Elkarten sustapena, eta Gazteen kultur sormena eta hedapena. Diru-laguntza hauek maiatzean zehar eskatu ahalko dira, Udalak anuntziatuko duen datatik aurrera. Informazio zehatz guztia; Oñatiko Udaleko Web orrian edota Haur eta Gazteria sailean eskuratu ahalko da.

>> Emantzipaziorako diru-laguntzak.

Oñatiko herrian gazteek etxebizitzak alokatzeko diru-laguntzak ematea arautuko dituzten oinarrien Ordenantza onartu berri du Oñatiko udalak. Beraz, diru-laguntza hauek ere eskatu ahalko dira Gipuzkoako Aldizkari Boletinean argitaratu eta hurrengo egunetik hasita. Hau da, maiatzeko lehenengo aste ingurutik aurrera. Informazio zehatz guztia; Oñatiko Udaleko Web orrian edota Haur eta Gazteria sailean eskuratu ahalko da.

MAIATZEAN...

[14] **GAZTELEKUA:** Kontzertua: Enkore + Lauropa; 22:30. Sarrera 5€. [15] **KUBOA:** Mailakoekin Udako Planen Bilera. [EKAINAK 3] Mailakoekin Udako Planen Bilera. [6-13] **LUDOTEKAN:** Aurrekontu parte hartzaileak. [7] **LUDOTEKAN:** Ludoteka ibiltaria eta San Migel txikiak. Jolas taile-rrak, San Anton plazatxoan.



Boxeo jaialdia Oñatin

EMAKUMEZKOEN ZAZPI KONBATE JOKATUKO DIRA MAIATZAREN 22AN ZUBIKOA KIROLDEGIAN (19:00).

Ia 40 urteren ondoren, boxeo bertatik bertara ikusteko aukera izango dugu Oñatin maiatzaren 22an. Berezitasun batekin gainera, izan ere emakumezkoen boxeo jaialdia izango baita oso osorik. Espainiako *amateur* mailako boxeolaririk ontsuenak ariko dira bertan, besteak beste Ixa Rodriguez plaentxiarra, Espainiako txapelduna. Otsailaz geroztik Oñatin ari da Ixa boxeo ikastaroak ematen Indar gimnasioan, eta bera dugu jaialdi honen bultzatzaile nagusia.

Oñatin boxeozaletasuna berpizteko asmotan?

Bai, Oñatin boxeozaletasun handia egon zen bere garaian; *Boxing Club* bat ere egon zen, eta baita boxeolariak ere; beraz, ilusio handia egiten digu Oñatira berriro boxeo ekartzeak.

Gainera, orduko boxeolariak gogoratuz, konbateen aurreko boxeolarien pisaketa Txaketua tabernan egingo dugu, Oñatiko *Boxing Club*-a bertan sortu zelako 1917 inguruan. Boxeo jaialdia amaitu ondoren ere luntx bat egingo dugu Txaketua tabernan bertan, nahi duten zaletuek boxeolariekin hitz egiteko aukera izan dezaten.

Emakumezkoen boxeo jaialdia izango da. Zergatik?

Indar handia hartzen ari delako Euskadi mailan. *Lopabox* (Josu Lopategi) elkarte lan handia egiten ari da, eta gaur egun Euskadin daude estatu mailako emakume boxeolaririk ontsuenak *amateur* mailan.

Nolakoa izango da boxeo jaialdia?

Esan bezala, lehenengo pisaketak egingo ditugu Txaketua tabernan 16:30etan, eta boxeo jaialdia 19:00etan hasiko da Zubikoa kiroldegiko kantxan. Guztira 7 konbate jokatuko dira pisu ezberdinetan, 2 minutuko



IXA RODRIGUEZ
Espainiako txapelduna amateur mailan.

“Ilusio handiz ari gara Oñatiko jaialdia prestatzen. Animatu egin nahi dut jendea. Dena emango dugu eta ez da inor damutuko”

4 asaltokoa bakoitza. Bi ordu pasatxoko ikuskizuna izango da. Manu Maritxalar izango da epailea.

Nola dago boxeozaletasuna Euskadi mailan?

Oso indartsu; Bizkaia aldean batez ere. Asteburu guztietan daude boxeo jaialdiak. Estatu mailan bertan dago afiziorik handiena.

Emakumeen artean ere gero eta boxeolari gehiago gaude, *Lopabox* elkartearen lanari esker. Gipuzkoan motelago gaude oraindik, baina ari gara poliki poliki bidea egiten.

Zergatik joan beharko genuke boxeo jaialdia ikustera?

Ikuskizun ederra izango delako, eta boxeoaren inguruan dauden topikoak eta irudi negatiboa kentzen lagunguko duelako. Errespetua, kiroltasuna eta diziplina dira nagusi boxeoan, eta, benetan, merezi du kirol hau ezagutzeak.

ERAKUSTALDIA

Boxeo jaialdirako girotzen joateko, Lopabox taldeko boxeolariak erakustaldi bat egingo dute **maiatzaren 8an** Txaketua aurrealdean (13:30). Entrenamendu saio bat egingo dute, boxearen teknika erakusteko



Beraz, animatu egin nahi ditut oñatiarrak boxeo jaialdia ikustera. Ilusio handiz ari gara prestatzen, eta jendea ez da damutuko. Dena emango dugu.

Zenbat balio du sarrerak?

10€ aldeztatik erosita, (Indar gimnasioan eta Txaketuan) eta 12€ takilan. (12 urte arteko gaztetxoak doan sartu ahal izango dira, nagusi batekin badoaz).

Eskerrak eman nahi dizkiot Oñatiko udalari eman digun laguntzagatik. Bestela ezinezkoa izango zen era honetako jaialdi bat antolatzea.

Otsailean hasi zinen boxeo ikastaroak ematen Oñatin. Zer moduz?

Oso ondo. Indar gimnasioan ematen ditut saioak astean bi egunetan, eta itxaron zerrenda daukagu. Jendea gustora dabil. Ez dugu borrokarik giten; boxearen teknika lantzen dugu. Kirol konpletoa da boxeo; gorputz atal guztiak lantzen dira, arreta edo atentzioa ere bai... Oso aktibitate egokia da pisua kentzeko gorputza tonifikatzeko, burua despejatzeko... Boxeoan sakondu nahi duenak ere izango du aukera aurrerago.

HERRIKO PILOTA TXAPELKETA ABIAN DA



Maiatzaren 22a baino lehen eman behar da izena

lazkoak izan zuen harrera polita kontuan hartuz, aurten ere herri mailako pilota txapelketa jokatu da, Txosna batzordeak eta Aloña Mendiko Pilota sailak antolatuta. Txapelketa bera ekaina, uztaile eta irailean zehar (finala herriko jaietan) jokatu da, baina maiatzaren 22a baino lehen eman behar da izena (10 euro bikoteko) Arrano, Ona eta Aloña tabernetan. Bikoteko federatu bat onartuko da, gehienez. Finalistek 4^{1/2}-ko txapelketako finalerako sarrerak eskuratuko dituzte

HERRI ARTEKO PILOTA TXAPELKETA

Oñati - Zumarraga, Final-hamaseirenetan

Oñatik eta Zumarragak neurtuko dituzte indarrak Interpueblos txapelketako final hamaseirenetan. Zubikoan jokatu dira joaneko partiduak ostiral honetan (**maiatzak 6**) iluntzeko **8.30**etan hasita. Iñigo Perez-Markel Gartzia (Kadeteak), Ander Biain-aAtor Otamendi (Jubenilak) eta Sergio Uriarte-Gorka Perez (Nagusiak) arituko dira.

Esprintean erabaki zen Aloñako Igoera

Asteburu bete-betea izan genuen aurrekoa mendi lasterketei dagokienez. Ezer baino lehen, zori-nak antolakuntza talde osoari, egindako lan bikainagatik. Kirol arloan, Iban Murua (25:09) eta Ainhoa Lendinez (35:25) elgoibartarrak nagusitu ziren Buetraitzeko Igoera Bertikalean, pronostikoak hautsiz. Iñigo Lariz (26:35) eta Imanol Goñik (27:49) osatu zuten podiuma gizonetakoan, eta Aitziber Ibarbia (35:55) eta Maite Zabaleta oñatiarrak (37:14) emakumezkoetan. Oñatiarren artean Joseba Molinero (30:11) eta Iker Arkauz (31:26) izan ziren azkarrenak Bellotza eta Buetraitz arteko igoeran (2,7km. eta 730m+).

GOÑI ETA KORTAZAR NAGUSI

Osital gabekoa emozioz beteta egon bazen, zer esan igandekoaz, azken metroetan erabaki baitzen. Imanol Goñi (2:04:09) eta Walter Becerra (2:04:13) elkarrekin iritsi ziren plazara eta Earra nagusitu zen esprintean. Becerrak ezin izan zuen bere bosgarren garaipena lortu. Iban Letamendi oñatiarrak (2:12:38) osatu zuen podiuma. Axier Alonso (2:13:34) laugarren sailkatu zen, Beñat Madariaga (2:20:18) zortzigarren, Iñaki Arriaran (2:21:20) hamargarren, eta Xabier Lete (2:21:35) hamaikagarren. Joxe Mendiola (2:29:06) lehen beteteranoa izan zen.

Emakumezkoetan Oihana Kortazar (2:40:56) Elgetako korrikalari handia nagusitu zen arazorik gabe. Nerea Amilibiak (2:50:52) eta Arantzazu Perezek (2:52:44) osatu zuten podiuma. Maite Zabaleta (3:01:59) izan zen lehen oñatiarra. Antolakuntzak omenaldia egin zion Argider Isastiri, hamabi urte hauetan egindako lana eskertuz.



Becerra eta Goñi esprintean



Kortazar helmugara iristen



Zabaleta eta Molinero igoera bertikalean

HERRIKO FUTBOL TXAPELKETA

ZALAPARTA TXAPELDUN

Kalañatasaray hartu zuen mendean penaltietan. Kopan Auschwitz nagusi

Zalapartak historia egin du Herriko Futbol Txapelketan, bere estreineko partehartzean titulua irabazi baitu. **Kalañatasaray** hartu zuen mendean penalti jaurtiketetan, partidua 1-1 amaitu ostean. Penalti erabakiorra gelditu zuen losu Unzurrunzaga izendatu zuten jokalaririk onena. Kontsolazioko finalean **Albok** nagusitu zen, hauek ere penaltietan, **Etxaixatekin** 2-2 berdindu ostean. Eta Kopa txapelketan **Auschwitz** nagusitu zen argi eta garbi, 3-0 irabazita **Sasquatch** taldeari. Carlos Cruickshank izan zen jokalaria onena hiru golak sartuta. Aurten, aspaldiko partez (1989an izan zen azkenengo aldia) 13 taldeko multzo bakarrean jokatu da txapelketa. Orain udazkenerarte atseden hartuko du txapelketaK.

ESKER ONEZ

Herriko Futbol Txapelketako antolakuntzak eskerak eman nahi dizkie laguntza eman duten ondorengo etxeei: ONA, XAGUXAR, ITURRI, IZARRAITZ, LUIS, PACO, TXAKETUA, AKER, PORTU, OÑATI, GALIZIA, BOGA, ITURRITXO, OSI KIROLAK, LIZARRALDE KIROLAK, ALZU, CAJA LABORAL, SUPER BM, ULMA, URRUTXI, GERETA ARDOAK, AS-TORE, URRUTIA GIZONAK, EZPELETA, ARANBURU BITXITEGIA, CARAVANAS OÑATE, CODORNIU, ALOÑA MENDI, UDALA ETA OÑATI IRRATIA



Zalaparta



Kalañatasaray



Auschwitz



Kiroltasun saria
Mikel Vizcaino (Dollygans)



Atezain onena
Aitor Sanchez (Albok)



Gogegile onena
Gorka Alzelai (Albok)



Jokalaria beterranoa
Iñaki Murua (Kili Kolo)

**ARANBURU
ALTZARIAK**

Kale Zaharra, 21
Kale Barria, 11
Lizaur A., 7
OÑATI
Tfnok: 78 11 60 / 78 05 73

**ESTILO
GUZTIETAKO
ALTZARIAK**

**LANPARAK,
TAPIZAK,
KORTINAK**

S distira
estetika zentrua

- Manikura eta Pedikurak
- Solarluma
- Gorputzeko Tratamenduak
- Aurpegiako Tratamenduak
- Depilazioa

San Lorenzo 4 behea | Tel. 943 78 08 86 | 20560 OÑATI
email/twitter: estetika.distira@gmail.com

25 urte Oñati-Lizarra travesia egiten

Herriko mendizale talde batek 25 urte darama Oñati eta Lizarra arteko travesia egiten. Maiatzaren 14an egingo dute aurtengoa, 25.a

1991n hasi zen mendi zeharkaldi partikular honen historia. Jose Antonio Yaniz eta German Losada saiatu ziren Oñati eta Lizarra arteko bidea egiten uztaileko egun bero batean, baina Ancineraino bakarrik iritsi ziren. Hurrengo urtean, Txantxiku Mendigoizaleak taldekoei proposatu zieten plana, eta orduz geroztik urtero egin dute ibilaldia, San Isidro egunaren bueltan.

Goizeko 4etan irtetzen dira Oñatitik (San Martineko zubitik) eta arratsaleko 7ak aldera iristen dira Lizarrara, 70 bat kilometroko ibilbidea osatuta. Dutzatu, bapo afaldu, eta buelta etxera. Eulaten bazkaldu ohi dute, eta bertan autobusa egoten da, badaezpada, norbaitek travesia bertan behera utzi behar izanez gero. Aurten, urte berezia izanik, Ganuzara ere joango da autobusa, eta nahi dutenek, handik Lizarrarainoko azken tarte (13 km.) egiteko aukera izango dute. Dagoeneko 57 lagunek eman dute izena.



Oñatin abiatu, eta Lizarra izaten da mendigoizaleen helmuga.

Mendi irteera Kantabriara (Alto Ason-eko parke naturala)

Aloña Mendik maiatzerako antolatu duen mendi irteera Kantabriara izango da. Alto Ason-eko natur parkean barrena izango da ibilaldia. Parkeko basoak eta goi lautadak zeharkatu eta Porracolina (1.448m) mendia igoko dute. Asoneko ur-jauzia ikusteko aukera ere egongo da. Irteerak ez du zailtasunik (17 km. eta 950m.-ko desnibela) eta 6 bat ordutan egiten da. Gogoratu federatuta egon behar dela parte hartzeko.



Apirilean
Iparla
gainean
ateratako
argazkia

Eguna: maiatzak 15

Irteera: goizeko 7etan, Korreos parean.

Izen-ematea: maiatzaren 12a baino lehen, Aloña Mendi tabernan. Bazkideak 10€, ez bazkideak 13€, langabetuak 5€

GPS ikastaroa

Aloña Mendiko Mendi sailak antolatuta, GPSaren inguruko ikastaroa egingo da maiatzaren 16, 17, 18 eta 19an, Aloña Mendiko egoitzan, 18:00etatik 21:00etara.

LANDHER formazio enpresak emango du, eta *Basecamp* eta *Google Earth* programak erabiliko dira. Partaideek portatila eraman beharko dute. Norbaitek portatilik ez badauka, abisatu behar du izena ematerakoan (Aloñak badauka pare bat).

Ikastaroaren helburuak: etxean irteerak prestatzea eta GPSra pasatzea. Irteera ondoren ordenagailura pasatzea eta aztertzea; informazio iturriak ezagutzea: mapak, track-ak...

Kopurua mugatua da: 12 pertsona (bazkideek lehenetsuna izango dute). Izena emateko azken eguna: maiatzak 11, alonamendi.mendi@gmail.com helbidera idatzita. Prezioa: 60€.





COINBROKER
OÑATI ASEGURU ARTEKARITZA
CORREDURIA DE SEGUROS

ASEGURU MOTA GUZTIAK LANTZEN DITUGU

Partikularrentzako:
Komunitateak, etxebizitzak, zaporegailuak, osasuna, biztasun, autozuzenak, heriotza, pertsona-planetatik, baxtegiak, bidai-asegurua, eta beste.

Negoioentzako:
Enpresa, Komertzioak, Autozuzenak eta beste.

Arantza zuloa: Ama Kalea, 9 - 20560 Oñati

☎ 343 025 006 🌐 www.coinbroker.eus
🌐 www.gpsakoa.coinbroker.eus

EMUSIK



Europako Musika Eskolen XII. Jaialdia Oñatira iritsiko da maiatzaren 6 eta 7an, Donostiako Kultur Hiriburutzaren baitan

Alemania, Suitza, Letonia eta Albaceteko musikariak arituko dira Oñatin

'Musika da batzen gaituen hizkuntza komuna'. Premisa horretatik abiatuta, Europako Musika Eskolen XII. Jaialdia ospatuko da maiatzaren 5etik 8ra, Donostiako Kultur Hiriburutzaren barruan, kultura eta herrialde desberdinen arteko hurbilketa eta hartu-emana bultzatzeko helburuarekin. Hala, Europako herrialde ezberdinetako 8.500 inguru musikari etorriko dira Euskal Herrira egun horietan.

Donostian egingo dira EMUSIK jaialdiko hasiera eta amaierako ekitaldi nagusiak, baina hiriburuan ez ezik, EAE, Nafarroa, Iparraldea eta Errioxako 59 herritara ere zabalduko da jaialdia. Hala, Oñatin bi kontzertu egongo dira (ikusitako egitaraua); lehenengoan (maiatzak 6) **Alemania** eta **Suitzako** ikasleek parte hartuko dute, eta bigarrenean (maiatzak 7) **Letonia** eta **Caudete**-koek (Albacete). Bi saioetan Oñatiko Jose de Azpiazu musika eskolako ikasleak izango dira anfitrioiak.

EGITARAUA

MAIATZAK 6, OSTIRALA FORU ENPARANTZAN (18:00)

- Europako ereserkia
- Haize-egur taldea (Oñati)
- Triki Konbo taldea (Oñati)
- Akordeoi taldea (Oñati)
- Alemania eta Suitzako musikari gazteen orkestra
- Dultzaina (Oñati)
- Konboa (Oñati)
- Musikatu bizitza EMUSIK jaialdiko abesti ofiziala interpretatu, abestu eta dantzatuko dute guztiek batera.

MAIATZAK 7, LARUNBATA FORU ENPARANTZAN (11:30)

- Europako ereserkia
- Musk Band taldea (Oñati)
- Haize-metal taldea (Oñati)
- Caudeteko (Albacete) musika banda
- Triki-pandero taldea (Oñati)
- Letoniako Bras band
- Musikatu bizitza EMUSIK jaialdiko abesti ofiziala denen artean.



Oñatiko musika eskolako ikasleek ere parte hartuko dute Alemania, Suitza, Letonia eta Albaceteko musikari gazteekin batera.

ARRIZABALAGA
Aroztegia

Berezaio Ind. 10
Tel. 943 78 14 64

PAKITA
Altzariak

Sta. Marina, 6
Tel. 943 78 02 21

BUKALDE ALTZARIAK • ALTZARI RUSTINGAK • NEURRIRA ENPOTATURIKO ALTZARIAK

IRAZOLA

Okindegia

Laneta 6200, 44
Tel.: 943 78 25 97
Mug.: 688 630 754
OÑATI

Hazteko egia: egurrezko laquea



**Musikarekin
hasi, hezi eta bizi...**

- 4 urtetik aurrera hezkuntza musikala
- Kalitatezko musika heziketa
- Musika taldean egiteko aukera
- Kontzertuak, emanaldiak...

Matrikula epea: maiatzaren 23tik - 31ra

**JOSE DE AZPIAZU
MUSIKA ESKOLA**
J. Molua Kalea 20
20560 Oñati



idazkaritza@jazpiazumusikaeskola.com
www.jazpiazumusikaeskola.com

Tel: 943783174

Astelehenetan:
16:00etatik 19:00tara
**Asteartea -Asteaskena
eta Osteguna:**
16:00etatik 20:00tara
Ostirala:
17:00etatik 19:00tara



Arkauz zure etxea da.

ARKAUZ
GRUPO
ARETXABAETA 1950 - 2016 ARRASATE
65 urte baino gehiago

ARKAUZ
HOCOLCI
ARETXABAETA
FLEX
Luzerak eta plinok

TXE
MODEL
ALTIORRA
ARETXABAETA
FLEX
Luzerak eta plinok



'Fier, free, aske'

Xabin Egañaren omenezko erakusketa

Xabin Egaña artista hil zela hamar urte betetzen diren honetan, haren omenezko erakusketa antolatu dute senide eta lagunek.

Gaztaroa Oñatin igaro ondoren, Donostia,artzelona, Bilbo, New York, Alemania eta Norvegia aldean ibili zen Xabin, Gasteizen bizitzaren jarri zen arte. Munduan zehar toki askotan (Hamburgo, New York, Madril...) egon dira ikusgai bere artelanak, baina Oñatin ez da hain ezaguna, eta horixe da, hain zuzen, erakusketa honen helburua; alegia, Xabin nor izan zen azaldu eta bere lana erakustea, batez ere gazteei.

Formato handiko 16 artelan egongo dira ikusgai kultur etxean, Xabinen sorkuntza garai ezberdinen erakusgarri: espresionista tankerakoak, abstraktoagoak, digitalak...

Lagunen oso laguna, eta sortzailerik etengabea. Halaxe gogoratzen dute lagunek Xabin. Artearen ikuspuntu propioa zeukan, merkantilismotik ihesi beti ere. Teknika eta materialetan ikertzea gustuko zuen. Artista bete-betea zen.



ARTISTA PRESENTE EGONGO DA

Xabinen artelanak ez ezik, bere ari-ma ere presente egongo da kultur etxeko erakusketan. Hala, 1980ko hamarkadan fakultateko lan baterako margotzen ari zela Agustín Goenagak egin zizkion argazki batzuk egongo dira ikusgai, eta baita Xabinen pintzelak, paleta, liburuak... 1982an Oñatin kaleratu zen *El akto* fanzinerako egin zituen komikiak, *Saz le Bolo*-ren diskoaren azala, idatzi zituen liburuak eta beste hainbat lan egongo dira ikusgai.

XABIN EGAÑA - Arteari lotutako bizitza

> Xabin Egaña Azurmendi 1958an jaio zen Oñatin eta 2006ko maiatzaren 16an hil zen Gasteizen. Oso gazterik deskubritu zuen pinturarako zaletasuna. Donostiako Sistiaga akademian hasi zituen ikasketak, eta hala igaro zuen gaztaroa, Oñati eta Donostia artean. Gero,artzelona, Bilbo, Alemania, New York eta Norvegia aldean ibili zen, Gasteizen bizilekua finkatu arte. Hiri horietan guztietan osatu zuen bere formazioa. Arte Ederretan lizentziatua, Baloreen Filosofia eta Gizarte Antropologian espezializatu zen.

Talde-lana eta diziplina ezberdinen uztarketa maite zuen. Ildo horretan, musika eta antzerki talde ezberdinentzako eszenografia eta diseinu lanetan ere parte hartu zuen.

Taldean nahiz bakarka, erakusketa ugari egin zituen Gasteizen, Donostian,artzelonan, Hamburgon eta New Yorken, besteak beste. Irakasle ere aritu zen lau urtez, baina utzi egin zuen arlo pedagogikoa, arte ikerketan zentratzeko erabat.

Oñati (Gaztelekuan eta udaletxean), Donostia, Zarautz edota Arrasateko eraikin publikoetan daude ikusgai Xabinen lanak. Informazio gehiago: <http://catalogo.artium.org/dossieres/1/xabin-egana>



MODA BEREZIA

Kale Barria, 12
Tel. Faxa: 943 71 62 40

CORTABARRIA

INMOBILIARI AGENTZIA • GESTORIA

Etxe eta lokalen gestio orokorrak

- Administrazioa
- Informazioa
- Solventa
- Hazlendarekin
- Trafikorekin
- Herentziak, eta abar

Kale Barria, 42 beheak • Tel.: 943 78.05 87 • email: inkorta@telefonos.es



maiatzaren 6tik 22ra
kultur etxeko
erakusketa aretoan
egunero, 18:00-20:00

IKERKETA ETA ESPRIMENTAZIOA

> Ikerketa eta esperimentazioa maite zituen Xabinek, bai materialetan eta baita teknikan ere, bide berriak urratzeko ahaleaginean beti ere. Oñatiko udaletxean dagoen 'Aitaren kezka' margolana, esaterako, olio eta arrautza tenperaz egina dago. Arrautzaren gorringoa, ur destilatua, mineralak eta pigmentuak nahasten zituen, berak nahi zituen koloreak lortzeko. Kuadro honetarako, konkretuki, Bidaurreta komentuko arrautzak erabili omen zituen. Pigmentuak Alemaniatik ekartzen zituen. Kolore eta forma ez ezik, testura ere bereziki zaindu eta landu ohi zuen Xabinek, eta teknika ezberdinak erabiltzen zituen mihise-ari bolumena, erliebea eta beste dimentsio bat emateko.



BI BIDAIA LIBURU



Mundua akademia bat zela esan ohi zuen Xabinek. Bidaia gustuko zuen; bakarrik, oinez eta gauza gutxirekin. Eta hain zuzen, Europako iparraldean burutu zuen bidaia horietako batean egindako litografia eta olerkiez osatu zuen *Oinez* (1998) liburua. Gero, 2002an, Somportetik Fisterraraino, Santiago bidean zehar egindako ibilaldiari buruzko *Diario de un peregrino* (Ed. Bassara) argitaratu zuen; akuarela egindako margolanak eta testua (sentipenak, hausnarketak) uztartzen dituen peregrinaje artistikoa. Bassaraik berrargitaratu egin zuen liburua 2007an omenaldi gisa.

Ikaskuntza Dialogikoa aztergai Ramon Flecha adituaren eskutik

Elkar Hezi ikastetxeak antolatuta, Ramón Flecha hezkuntza-ikerlari ezagunak hitzaldia emango du maiatzaren 6an kultur etxeko zine



aretoan (15:00-18:00). Saio irekia izango da eta interesa duen orok izango du sarbidea. Flechak Europar Batasunak

sustatutako hezkuntza arloko hainbat proiektu zuzendu ditu, eta Euskal Herri mailan Ikas Komunitateen hezkuntza proiektuaren sortzailea da. Ikaskuntza Dialogikoaren oinarriak azalduko ditu Flechak.

Benito Lertxundiren kantak abestuko ditu Ganbara Txikik

Ganbara Txiki abesbatzak, ganbara orkestra bat lagun duela, Benito Lertxundiren kanta ezagunenak ('Oi lur', 'Bizkaia maite', 'Oi baldorba...') abestuko ditu maiatzaren 15ean San Migel parrokian (19:00). Ganbara Kantu Eskolak bazkideei eskaintzen dien urteroko kontzertu berezia izango da, baina edozein herritarrek joan ahal izango du 8€-ko sarrera ordainduta.

2013an jarri zuen martxan Ganbarak 'Kultura Elkarrekin' ekimena, bazkide eta laguntzaileak lortzeko asmoz, esku artean dituzten proiektuei aurre egin ahal izateko. Gaur egun 92 bazkide ditu, eta bost urteren buruan bikoiztu egin nahi dute bazkide kopurua.

ESKANTZETA **90€** **BEREZIA**
Gurtia berrak

EZKONTZETAN **Utze-Mundi**
2016 urtean
Informazio gehiago,
Tel. 943 78 19 56
www.etxeaundi.com

AGENDA

05

MAIATZA



ANTZERKIA

> **MAIATZAK 26 / 17:00**
HAURRENTZAKO IPUIN
KONTAKETA SAIOA



Ostegun Kontalariak programaren barruan, 6-10 urteko haurrentzako saioa Lur Kortaren eskutik, maiatzaren 26an (18:00) Haur liburutegian. Astebete aurretik gonbidapenak banatuko dira.

TERTULIXAN

> **MAIATZAK 11 / 18:30**
Udal liburutegiko gaztele-razko irakurketa taldea, 'El inicio de la primavera' (Penelope Fitzgelard) liburuaren inguruan.

> **APIRILAK 18 / 18:30**
Euskarazko irakurketa taldearen saioa, 'Eta handik gutxira' (Eider Rodriguez) liburuaren inguruan.

KUBAN ZEHAR BIZIKLETAZ Iñigo Mugarza eta Jon Murillo

> **MAIATZAK 10**
EUSKALDUN BERRIA
GELAN (Bidebarrieta 18),
19:00

Txirrinka taldeak antolatuta, Iñigo Mugarza eta Jon Murillo oñatiarrek iazko udan Kuban barrena bizikletaz egindako bidaiaren kontakizuna egingo dute irudiez lagunduta. Santiagotik Habanarako bidean izandako bizipenak eta gorabeherak azalduko dituzte.

BAZKIDE KANPAINA

Maiatzaren 7an, zapatua, goiz eta eguerdi partean Oñatiko plazan egongo dira Txirrinka taldeko kideak, bazkide egiteko aukera eskainiz. Kamisetak ere jarriko dituzte salgai

KONTZERTUAK

> **MAIATZAK 27 / 22:00**
HARAKIRI
'Harakiri' taldearen kontzertua Antixena gaztetxean, 22:00

> **MAIATZAK 28 / 22:00**
'DISCIPULOS DE DIONISOS'
ETA 'BITZ'



Donostiako 'Discípulos de Dionisos' eta Oñatiko 'Bitz' punk-rock taldeen kontzertua Antixena gaztetxean

BERTSOAK

> **MAIATZAK 17 / 17:00**
AHOZKOTASUNA ETA
BERTSOLARITZA
Ikasturte amaierako saioak Santa Ana antzokian. 17:00etan LH-5eko ikasleak eta 18:00etan LH-6koak. Maiatzaren 19an DBH-1 eko ikasleen saioa Santa Anan, 17:00etan.



+ INFO

Eskaneatu ezazu QR kode hau agendako deialdi guztiak ikusi ahal izateko.



**MEKANIZATU ETA KONPONKETAK OROKORREAN
TORNO ETA FRESADORAK, ZENBAKIZKO KONTROLA**

Zubillaga auzoa 12 • Industrialdea • OÑATI (Gipuzkoa)
Telefonoa: 943 78 11 15 • Faxa: 943 71 82 50



HITZALDI-TAILERRAK

- > **MAIATZAK 9, 10 eta 11**
DIABETESARI BURUZKO
TAILERRA
Oñatiko osasun zentroan,
pazienteei eta laguntzaileei
zuzenduta
- > **MAIATZAK 13 / 17:00**
BIZKARREKO OSASUNA
HOBETZEKO TAILERRA
Kirolegiko fitness gelan.
- > **MAIATZAK 20-21**
'NORDIC WALKING'
Hastapen ikastaroa Zubikoa
kirolegian
- > **MAIATZAK 26 / 18:30**
ELIKADURA OSASUNTSUA
Guraso Eskolak antolatuta,
Euskaldun Berria gelan, Bide-
barrieta kaleko 18an..

'LAUROBA' ETA 'ENKORE' TALDEEN KONTZERTUA

- > **MAIATZAK 14**
GAZTELEKUAN, 22:30
Donostiako 'Lauroba' pop-
rock taldearen kontzertuaz
gozatzeko aukera izango
dugu Gaztelekuan hilaren
14an. Aurretik Bilboko
Rekalde auzoko 'Enkore'
rock taldea arituko da.
Sarrera 5€.

ODOL ATERALDIA

- > **MAIATZAK 13**
Maiatzeko odol ateraldia,
ikastolako aretoan, 17:30-
19:30

GOGOAN HARTZEKOAK ●●●●●●●●●●

MUS TXAPELKETA

MAIATZAK 13

Erain Debagoienak antolatutako es-
kualde mailako txapelketa. Oñatiko
sailkapen saioa maiatzaren 13an joka-
tuko da, **Boga** tabernan, gaueko 22:30etan. Izen ematea: 20€ bi-
koteko. Aurreneko bi sailkatuak maiatzaren 21ean Aretxabaletan
jokatuko den finalerako sailkatuko dira.



AUZOETAKO JAIAXK

San Migel Txiki (maiatzak 6-8); **Kasablanka** (maiatzak 13-15);
Murgiako jaiak (maiatzak 13-15); **Errekalde** (maiatzak 20-22);
Araotzeko jaiak (maiatzak 21-22)

BERDINTXIKETAN LASTERKETA

Enpresagintza fakultateak antolatzen duen bikote mixtoen laster-
keta herrikoia, 19:30etan

LIBURUTEGIKO BERRIENAK



Narratiba
"Viaje a la costa"



CD Musika
"Txerokee: Mikel Laboaren."



Haur liburua
"100 kontu ondo ezagu..."



CD Musika
"Hortzikarak"



DVD telesaila
"Juego de Tronos"



Ekonomia liburua
"¿Para qué sirve realmente la economía?"

MERKATU TXIKIA

- > **Garajea** errentan Kurtze Bide kaleko 1 zenbakian. Deitu: 652 765 090
- > **Etxebizitza** alokagai Kale Barria 54an (Etxaluze). 100m2. Hiru logela, ikasteko gela, sukaldea, saloia eta 2 komun. 55€ hileko. Aukeran garaje itxia (50€/hileko) eta ganbara (30€/hileko). Deitu: 669 710 116..

Tel.:943 78 20 72 | Posta-e: kontzejupetik@onati.eus

GUARDIAKO FARMAZIAK



- ANDUAGA San Lorentzo 3, 943 78 21 16**
Maiatzak 5, 13, 14, 15, 23 eta 24, eta ekainak 1 eta 2.
- IGARTUA Kale Zaharra 1, 943 78 01 22**
Maiatzak 6, 7, 8, 16, 17, 25 eta 26 eta ekainak 3, 4 eta 5.
- GARATE Kale Barria 42, 943 78 05 58**
Maiatzak 9, 10, 18, 19, 27, 28 eta 29.
- JULDAIN Kale Barria 6, 943 78 11 28**
Maiatzak 11, 12, 20, 21 eta 22.

not+ vello

fotodepilación con láser para

FOTODEPILAZIOA
IPL GAZTETZEA

AZALEKO GARBINETAK
DIPARI TXARTELAK

tarifa finkoa 30€ (zona / sesio)

Olakua 1B, Behea

☎ 943 71 67 13

✉ onati@nomasvello.com

www.nomasvello.es

San Migelen imajina

Xabier Zelaia

Korpus eguneko prozesioan ateratzen diren imajina guztien egileak zeintzuk diren jakiterik ez baldin badago ere, Udaleko akta-liburuek San Migelen imajinaren egilearen datu zehatzak dituzte.

1799ko urriaren 17ko aktan esaten denez, urte bereko irailaren 29an, San Migelen kofradiakideekin eta nobleen semeekin Udalak egindako bilkuran, imajina berria egiteko mandatua eman zioten alkateari, prozesioetan erabiltzen zena txikiegia zela kontuan hartuta. Madrilen bizi zen Alejandro Madinaveitia oñatiarrarengana jo zuen alkateak, eta Pedro Michel eskultorearekin harremanetan jarri ondoren, imajina berriaren proposamena bidali zuen Madinaveitiak.

Proposamenak San Migelen imajina zutik jartzea aurreikusten zuen, deabrua zapaltzen, tamaina naturaleko bi irudiak, euskarria osatzen zuten lainoen gainean jarrita. Irudiak haragi kolorekoak, eta andak zein euskarriaren apaindurako elementuak urrez-tatuak. Prezioa, 12.000 errealekoa guztira.

Imajina egokia izanda ere, Udalarari garestiegia iruditu zitzaion, eta egiteko mandatua berregin zion alkateari, baina 8.000 errealetik gora gastatu gabe.

Azaroaren 9ko bilkuran Michel eskultorearen proposamen berria aztertu zen. Honek ez zuen hasierako proposamena funtsean aldatu, eta euskarritik lainoak kentzeaz gain, imajinaren tamaina txikitzea mugatu zen. San Migelen irudiaren altuera 5/4 kanakoa izango zen oraingoan; etzandako deabruarena 1/3 kana, eta euskarria barne hartuta, imajinaren altuera bi kanatik gorakoa guztira, eskultorearen iritziz andetan eramateko tamaina egokia.

Prezioa 8.000 erreal, baina garraiorako zurezko enbalajea eta garraioa bera, Udalaren kontura izanda.

Urriaren 17an 8.000 errealetik gora ez gastatzea erabaki bazen ere, Udalak ontzat eman zuen proposamena, eskultoreari jakinaraziz garraio-gastuak Madinaveitia jaunarekin konpondu beharko zituela.

Pedro Michel ez zen edozein izan. Garai horretan Carlos IV.a erregearen eskultore nagusia zen, erregearen ganbara-eskultore. Frantzian, Le Puy-en-Velay herrian jaioa, 1748. urtean etorri zen Lyondik Madrilerara, 8 urte lehenago etorritako bere anaia Robertoren atzetik.

Roberto, Pedro baino eza-gunagoa da, eta Madrilen egin zuen lan gehien bat, Errege Jauregian, Alcalako Atean eta beste hainbat tokitan. Bereak dira Cibeles Iturriko lehoiak. San Fernandoren Akademiako irakasle izan zen, 1752. urtean eratu zenetik, eta 1785. urtean zuzendari. 1775. urtean erregearen ganbara-eskultore izendatu zuten. 1786an hil zen.

Pedrok, bere anaiaren itzalean egin zuen lan lehen 20 urtetan, eta ondoren bere maila berean. 1758. urtean San Fernandoren Akademiako meritu-akademiko izendatu zuten, eta beste hainbat karguren ondoren, eskultorako zuzendari 1804. urtean. Anaia hil ondoren, erregearen ganbara-eskultore kargua hartu zuen.

Robertori laguntzen egindako lanez gain, hainbat eskultura egin zituen Madrileko Errege Jauregian eta beste jauregi batzuetan. Madriletik kanpo, Azpeitian dago bere lanik aipatuena, parrokiako fatxada nagusiko 11 oin altuerako marmolezko San Sebastianen irudia, hain zuzen. Madrilen hil zen 1809. urtean.



Argazkia: Jon Ander Arzuaga

**Pedro Michel, San Migelen irudiaren egilea,
Carlos IV.a erregearen eskultore nagusia zen**

**GARBIKETA
ADMINISTRAZIOA
ETA KONPONKETAK**

- Era guztietako garbiketak
- Jabegoen eta elkarleen administrazioa
- Konponketa orokorrak



653 70 45 47

Oñati



**PINTURAS
URBIA
MARGOAK**

Arantzazuko Ama, 19A - IA • 652 71 08 37 eta 943 71 62 15

HISTORIA TXATALAK

Azkenengo
Arantzazuko
Igoera

> Ekainaren 4an jokatu den Arantzazuko txirrindulari igoera azkena izango da, bai behintzat orain arteko formato klasikoan. Datorren urtetik aurrera ez da igoera soilik izango; aurretik hainbat kilometro egingo dituzte txirrindulariek (ibilbidea zehaztu gabe dago oraindik) eta amaiera bai izango da Arantzazun.

Arantzazuko Igoea 1935ean jokatu zen aurreneko aldiz, C.D. Oñate taldeak antolatuta, eta oso arrakastatsua gertatu zen. Kirol kazetariak 'Gipuzkoako Mont Faron' bezala bataiatu zuten. Vicente Truebak irabazi zuen. Bigarrenean Claudio Leturiaga oñatiarra nagusitu zen, Federico Ezquerria handia mendean hartuta. Gerra zibilarekin batera lau urteko etena izan zuen probak, eta 1940an itzuli zen indartsu Txantxiku Txokoren eskutik.

Lezesarri

> Jerardo Elortza

Leurrez auzo txiki samarra izan arren, eduki du garrantzia Lezesarrik Oñatiko historian. Kaletik hurrean eta Arabarako nahiz Arantzazurako bidearen irteeran egoteak izango du, agian, zerikusirik horretan. Jadanik Erdi Aroan agertzen zaizkigu Lezesarriko erreferentziak, ordurako auzo honetan bizi ziren pertsona batzuek, Altzibar, Lezesarri, Goienetxe edo Gasteasoro deiturak baitzituzten. Jaumendi leku-izena ere aspalditxotik azaltzen da.

Lezesarrik badu bere auzo-ermita Azkoagain aldean: San Esteban, kristandadeko lehenengo martiriarena. Eta hantxe bertan daude beste bi apopilo ospetsu ere: San Krispin eta San Krispianino, zapatarien patroiak; oso ezagunak Oñatin, Gorputz eguneko prozesioan urtero ateratzen dituztelako. San Esteban berak baino tortura latzagoak jasan zituzten. Hala ere, batzuetan bihurritxoak garenez, "santu samurrak" direla esaten da herrian. Izan ere, bi anaia martiri hauen Oñatiko irudi politik gerritik gorakoak baitira.

Azken mende honetan aldakuntza nabarmenak izan ditu Lezesarrik. Herrigune inguruan egonda, era askotako eraikuntzak jaso dira bere eremu barruan:

Azken mende honetan aldakuntza nabarmenak izan ditu Lezesarrik

besteren artean, 1928an moja beneditarren monasterio eta ikastetxe berriak Altzibarren; 1949an Azkoagaingo futbol-zelaia; 1953ean Lezesarriko etxe-poligonoa, oraingo Roke Azkune kalean; eta hainbat lantegi eta tailer gerra ostean: Irizar, Billar eta konpainia / Betik zotz-fabrika / Uribarri zerrajerria / Zahor txokolategia, Natra orain / Inoxlan, gaur egun Eroski supermerkatua dagoen tokian / Igartua zerrategia, Urrintxo jatetxea eta abar. Gainera, zenbait etxe berri ere eraiki dira Lezesarri Arantzazurako errepide aldapsuaren ezker-eskuin.

Hizkuntza aldetik ere badauzka auzoak xehetasun aipagarriak. Jaumendi inguruan kokatzen omen zen, herriko plazatik bistan, Oñatiko jaun-konde ankerraren urkamendi beldurgarria. Gasteasoro baserria zaharra izan behar du inolaz ere, Erdi Aroko Gartzea / Gartzia / Gastea pertsona-izenaren lekuko argigarria baita. Eta badira hemen beste toponimo bitxi batzuk ere, Azkontegi, Tantelu edo Trokonitz, adibidez.

Desagertu edo aldatu ere egin ziren eraikuntza batzuk Lezesarri: esaterako, Araba-Arantzazutik datorren bidean zegoen, herriko sarreran, Altzibarko gurutzea; moja beneditarren monasterioa eraikitzeke botatako eta goraxeago eramandako Altzibar Azpikoa; askoz beranduago eraitsitako Altzibar Garaikoa; edota Damian Lizaurre arkitekto oñatiarraren egitasmoz egindako Gomen-dio-enea deituriko txalet txanbelina.

OÑATI GARBIKETAK S.L.

- Komunitate, garaje... garbiketa integrala
- Lumen kristalizatua, dekapatua
- eta argizari ematea.

Oñakua 17 beheko, esk. / Tel: 732 733 712
argitagarbi@hotmail.com



Almaraz
Inmobiliari gestioa

Tel: 679411444
www.almaraz.info

Carmelo Pérez de Almaraz

"Gure bezalako eskari eta beharrei erantzun nahian, etxebizitza, lokal, garaje, baserri, lursail edo pabiloi bat saldu edo alokatu nahi baduzu, dei lezaguzu".



ITTEN BAT

(*) Itten: arrastua, pista

Kontu kontari

LABESUKO EGURRA

Lehenagoko denporatan, labesua egitteko orduan egurra bera bakarrik etorten zan basotik. Etorri baiña, soseguz etorten zan, patxaran. Andra batek, egurrari begira aspertuta, halako batian agertu zanian gogor egin otsan egurrorri, hauxe botiaz:

“Etorri bihar baldin bahaiz, etorri, baiña etorriengan aguruago etorri; bestela sekula be ez etorri!”.

Jo! Egurrak hori entzun ebenian, disgusto haundixa hartu eben eta etzan sekula gehixago etorri.

Harrezkero geu fan bihar izaten gara basora egurretara, eta geuk ifiñi bihar izaten dogu brintzaatuta labian.



Ikasgaixa: *Jenixu txarra dominaitten jakin egin bihar da.*

Goguan hartzeak

-Txo, -to, -ko atziki txikigarrixak

Txikigarri honein funtziñua berbiari halako maittasun kutsu bat emutiaz gain: *maitexo, laztantxo, patxo, laguntxo, txikitxo, astotxo ...*; txikittasuna adierazotia: *gizontxo, andratxo, neskato, mutiltxo, etxetxo, artantxo ...*; edo graduaziño markia eranstia da: *askotxo, gutxitxo, gehitxo, nahikotxo, lartxo, apurtxo, eskastxo, moztxo, luzetxo, nasaitxo, estutxo, zabaltxo, justotxo, pittintxo bat...*

Politto, ederto, aketo, neskato...

Axalko, otsoko, akerko, zaldiko, zaldiko-maldiko...

Beste honeik, berriz, mespretxu kutsua dakoi: *Baldarko, kirtenko, takarko.*

Adb.: Zer moduz **maitte/maittetxo?** **Laztantxo** bat emungo dostazu? Nun da nere **txikitxua?** **Laguntxuarekin** etorri da. Ai, **astotxua** haiz gero! **Andratxo** bat egindda dago. **Mutiltxuakin** hasi dira-ta! Emungo dostazu **pittintxo** bat, probaitteko lain? Barbero horrek lana **politto** egitten dau. **Ederto** konponketan dira horreik bixak. Zelako **baldarkua** haizen! **Takar(ko)** hori!

Lotu honeik berbook euren esanguriakin

ONTZIXAK I

- | | |
|---|------------------|
| 1. Gauza askotarako ebalten zan ontzi haundixa eta zabala; esaterako, izarak beraketan izteko eta gero garbiketako. | a. Tina, -ia |
| 2. Suegurra, bedarra, lurra, sitsa, ogixak, ortuarixak edo gauza pisutsu samarrak karriattekko ebalten dan kastaiña-zimittezko ontzixa. | b. Barreiño, -ua |
| 3. Olixua eruateko ebalten dan buztinezko ontzixa. | c. Banasta, -ia |
| 4. Perretxikuak, kastaiñak, arrautzak, mantzanillia edo gauza arin samarrak eruateko ebalten dan kastaiña-zimittezko ontzixa | d. Edarra, -ia |
| 5. Buru gaiñian ura eruateko ebalten dan buztinezko ontzixa. | e. Otzara, -ia |

EUSKERAZ EGOGI

Bideklinaziñua -(r)ik partitibua galtzeia

- * Eztakot gosia
- * Badakozu dirua?
- * Ez jarri kartelak

Sari askotan entzun edo ikusten dira holako esaldixak eta jakiñekua da ezezko biribilla emuteruzkuan edo galdera zabala egitteruzkuan partitibuaren -(r)ik atzizkixa ebali bihar dala.

Ikusi degigun:

A- Eztakot *astixa!
B- Eztakozula astirik? Ba, hartu astixa, eta egin esandakua!

A- Badakozu *dirua?
B- Ze diru gura dozu?
A- Eztotsut esaten neure dirua edo zeure dirua dakozun.

B- Orduan preguntau egidazu ia dirurik dakoten
A- Bueno, badakozu dirurik?
B- Bai, badakot zeozer, zeuri emuteko lain.

A- Zeiñek eztako goserik?
B- Mahai horretakuak!
A- Orduan gosia egitteko fan dittezela pasio bat emutera, eta gosia eginddakuan etorri dittezela.

EZ JARRI KARTELIK ETA EZ EGIN PINTADARIK!



Kale Zaharreko emakumiak kartetan

Seguru asko batek baiño gehixagok ikusitta eukiko dau fotografia hau, liburu eta entziklopedietan iñoiz agertu da-eta. Hala eta guztiz be, sail honetara ekarteko modukua dala uste dogu. Horretarako arrazoiak era askotakuak dira: bestiak beste, argazkixa bera jeneraziño gaztiendako ezezaguna izango da; sasue bateko jantzixak eta ohitturak ederto erakusten dosku; eta fotografiarien gaiñeko datu eta argibide barrixak eskintteko aukeria dakogu orain.

Irudi honek neri betik gogora ekarten dost XIX. gizaldiko J. B. Elizanburu poeta lapurtarrak moldau eben kanta politta, Euskal Herri osuan zabaldu zana:

*Iragan besta biharamunean,
berek dakiten xoko batean,
lau andre, hiru mutxurdin,
bat alarguna, jarririk itzalean,
harri xabal bat belauenen gainean,
ari ziren ari ziren trukean.*

Oñatiko honetan eztira lau emakume bost baiño, kartetan lau dabiltzela emuten dau, mahaixa dakoi harri zabalaren ordez, eta eztakigu zertan diharduten trukian ala musian. Dakiguna da **Kale Zaharrekuak** dirala eta *Txikiñeko* etxeaurrian dagozela, gaur egungo kale bereko 52. numeruaren parian. Lehengo etxia bota eta barrixa jaso zan orain dala hamarkada batzuk.

Dana dala, inportantiena da orain arte emakume ezezagunak ziran horrein izenak edo, gutxienez, ezizenak jakittekko bidia izan dogula. Ezkerretik eskumara honeitxek dittuzue:

Maria Surluze; **Kaietana Madinabeitia Txintxurreta** araoztarra, Ursularen amagiñarrebia; **Kattalin (X.)**; **Ursula Uribetxeberria Balantzategi**, aitta aretxalbatarra eukana, guk *Txikiñeko* etxe horretan bizitten ezagutu geben Tomasa Elortzaren ama; eta **Patruxi (X.)**. Ikusten dozuenez, hutsuna batzuk badagoz oraindiok, baiña ia, danon artian aztertuaz, argiketan dittugun.

J. E.

Argazkixa Gemma Madinazkoitia eta Tomas Igartuaren bidez eskuratu dogu. Argibiderik gehixenak, berriz, Gemmari bere amak, Ines Urtzelaik, emun otsan. Tomasa Elortzaren alabia zan Ines. Honen lehengusuak Karmen Sabando Elortzak eta Kale Zaharreko Maritxu Erostarbek ere egin dituzte euren ekarpentxoak. Nunbaitten irakurri dogu fotografia garai bateko *Fotolux* enpresiak 1918xan ataratakua dala. Jantzixak-eta kontuan izanda, zaharragua izan leikiela pentsaitten xaku guri. Milla esker berau kaleraketako samurtasunak eta informaziñuak eskuratu doskuzuen guztioi!

Zuzenketatxo bat fan dan hillabeteko argazkixan: beheko illaran, erdi inguruan, lurrian jarritta agiri dan Rosario Korkostegi, gero karidadeko monja egin zana, oraindiok bizi dala esan dosku bere illoba Eduardo Korkostegik. Eskerrik asko.

1956-2016



URTE
ESKERRIK ASKO !!



grupo
amuebladora
mondragonesa

centro hogar MUEBLES



ARRASATE

